



ARGIA

Musika: 8
Euskara: 6
Plastika: 6
Fisika: 7,5
Gizarte: 6,8
Historia: 9,5

**EBALUAZIO
HEZITZAILEA**

AZTERKETEN EREDUA GAINDITZEN DUTEN ESKOLAK

» LARRUN: 1917KO ERRUSIAR IRAULTZA

» EDORTA SALVADOR, OGI ONA LORTZEKO SEKRETUAZ

» FRANTZIAKO HAUTESKUNDEAK BEREZI EGITEN DITUZTEN ZORTZI EZAUGARRI

Alberdi EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA



Opari berezietarako • pertsonalizatuak • prezio aukera desberdinak

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



ESKAERAK: www.argia.eus/denda/makilak | denda@argia.eus

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15 | 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | 943 371 545

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Nori egin dio kalte Indian diru fisikoa kentzeak?

IRITZIAK

- 17 Estitxu Garai Artetxe
- 18 Iñaki Barcena
- 19 Xabier Mendiguren
- Itziar Bardaji Goikoetxea
- 20 Iñaki Mendiguren



Apirilaren 23an eta maiatzaren 7an egingen dira Frantziako presidentetzarako hauteskundeak, azken 60 urteetako berezienak.

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: IZARO BASURKO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Edorta Salvador, okina: "Elikagai integralentzat jatorrizko izendapena sortu beharko genuke" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Ikastetxe hauetan etsaminik gabe ebaluatzen dute / Mikel Garcia Idiakez
- 28 | Koop Fabrika: Ekintzailatza beste begi eta esku batzuetatik / Lander Arretxea Bereziartua
- 30 | Frantziako presidentetzarako hauteskundeak: Ezbaiak, mamuak eta etsipena / Mikel Asurmendi
- 32 | Beiruteko egoitza: Palestinako diasporaren entitate politiko berria / Aitor Bikandi
- 34 | Lenkera, Honduras eta El Salvadorren desagertutako hizkuntza berpizten / Miel A. Elustondo
- 36 | Ilargiaren eragina, biraka dabilen fenomeno / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 42 | (H)Ilbeltza: Urte osoa irauten duen nobela beltzaren astea / Miel A. Elustondo
- 46 | Nori axola zaizkio antzerki liburuak? / Itziar Ugarte Irizar

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Ane Eslava, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Lukas Barandiaran, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetzat harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak egin, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (43 € urtean).



PANORAMA

Odolez zikindutako etekinen aurka

Bilboko Euskalduna Jauregian urtero egiten den BBVAren Akziodunen Batzarra protesta gune bilakatu zuen BBVAren aurkako Plataformak. Ohi bezala, umorea galdu barik, salatu zituzten etekinak kosta ahala kosta lortzeko "sufirimenduz eta odolez zikindutako negozioak": Armagintzan diru gehien inbertitzen duen enpresa da BBVA -3.000 milioi euro-; kalte handiko makroproiektuen finantzatzailea da, tartean, Donald Trumpek berraktibatutako Dakota Access olioduktua, AEBetako jatorrizko herriak sumindu dituen proiektua edo Kurdistango Ilisu urtegia, 313 kilometro koadro eta 65.000 bat kurduren herriak urperatu dituena; kontrakoa iragarri arren, BBVAk ehunka etxegabetze egiten jarraitzen du urtero eta, gizartearen sektore handi bat krisialditik atera ezinik egonik ere, 2016an 3.475 milioi euro irabazi zituen BBVAk.

Argazkia: Aritz Loiola - Testua: Axier Lopez



Euskaratik eta euskaraz, herri hau sortzen hitzaldia eskaini zuen Maialen Lujanbiok Elgoibarren, Uxue Alberdiren galderei erantzunez.

“Euskaratik eta gure mundu erreferentzialetik egin behar dugu, besteen ispiluetan gure buruaren bila ibili gabe”

“Iritsita gaude euskararen nibel kosmetiko minimo bat mantentzera. Zuzentasuna mantentzen da, baina euskara ez da funtzionamenduaren muinean sartzen”

“Gure politikak erakartzeari buruz ari dira beti, eta euskarak hain erakargarri izan behar horretan, nahikoa irudi xaloa eta beratua ematen dugu, batere ertzik eta nortasunik gabea”

“Helburu handietan beti galdu du euskarak gure herri honetan. Hainbesteko urgentziak dauzkagu eta hain arazo potoloak, hizkuntzaren gaia gero konpontzeko uzten dugula beti”



GURE ESKU DAGO

30.000 lagunek baino gehiagok eman du botoa erabakitzeko eskubidearen aldeko galdeketetan

Lukas Barandiaran San Roman
@barandiluk

124.274 pertsona deituak zituen Gure Esku Dagok martxoaren 19ko herri galdeketara, eta horien %24,83k bozkatu dute: 30.862k. Tolosaldean, Oarsoaldean, Astigarragan, Hernanin eta Larrabetzun antolatu dituzte galdeketak, 35 herritan denera. Parte-hartzea asko aldatu da herri txikietatik handietara. Orexan bozkatzera deitutakoen %82,11k bozkatu dute, eta Errearterian, galdeketa egin zen herrietatik handiena, %13,54k.

Jasotako bozen %95,84k baiezkorearen alde egin dute, eta %2,63k, berriz, kontra.

2014an Etxarri-Aranatz eta Arrankudiaga-Zollo izan ziren aitzindariak galdeketak egiten. Joan den urtean beste

36 herrik eduki zuten galdeketa egiteko aukera. Atzokoarekin, jada 70.000 pertsona inguruk eman dute bozka herri galdeketetan.

Eztabaida anitza bidelagun

Berriak Zelai Nikolas Gure Esku Dagoko kidearen hitzak jaso ditu. Esan du ez dela kontuan hartu behar zenbat jendeke parte hartzen duen soilik, baizik eta eztabaida zein testuingurutan egiten den. Eztabaidak anitza izan behar duela azpimarratu, eta hori lortzen ari direla erantsi du.

Herritarrek Euskal Herri independente batean bizi nahi duten ala ez galdetu dute galdeketetan. Galderaren muina bera bazen ere, galderaren formulazioa ez zen berdina leku guztietan.

“Bera da mahai gainean jarri ninduen”

SANDRA BARRENETXEAK TORTURA JASAN IZANA SALATU DU

Barrenetxea Ekinen aurkako operazio batean atxilotu zuten 2010ean, beste zortzi lagunekin batera. Denek salatu zituzten torturak, baina Barrenetxearen salaketak bakarrik egin du aurrera. Joan den astean, Barrenetxeak bera torturatu zuten hiru guardia zibil aurrez aurre ezagutu zituen epaitegian eta arnasestuka identifikatu zituen. “Bera da. Bera da mahai gainean jarri ninduen eta ondoren, aurpegia estalita, nire aurrean jarri zena. Badakit, aurrean nuelako eta ikusi nuelako. Eta beste hau autokoa da. Eta izkinakoa da deklarazioa hartu zidana. Ez zuen orrazkera hori, baina deklarazioa hartu zidana da, ziur”. **2017-03-17**



GALDERA TEKNIKOAK PARLAMENTARIARI :

HORRELAKE
BALDINTZAK
SARTUKO
BAGENITU
VASCUENCE
LEGE
BERRIAN?

KONPARAZIORA:
BADU 15 URTE*
BAZTANEN BIZI
DELA ETA EZ DU
EUSKARA IKASI?
DESERROLDATUA!!!

ALA
AUDIENCIA
NACIONALA
«MAMU
IDENTITARIOAK
ASTINTZEN
ARI DA»?

Espainiak ukatu dio
herritarasuna
Erriberako biztanle
bati espainiera*
ez ikasteagatik

OSO MAILA APALA ZEUKAN
ESPAINIAR KULTURA?





JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Bake Foroa: armagabetzea eta elkarbizitza azaltzeko unea

Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

Tendentzia politiko ezberdinetako herriar eta hautetsi anitz bildu da Biarritzen, *Armagabetzea, bake prozesuaren zerbitzura* deitu foroaren kari. Armagabetze prozesuaz eta zehazkiago apirilaren 8an burutuko den ETA egituraren armagabetzeaz aritzeko unea izan da. Hain zuzen, horrek du poztu Anais Funosas Bake Bidea egiturako lehendakaria: "Guretzat hunkigarria da ikustea eramaten ditugun gogoetak gauzopen konkretuetan gorpuzten direla". Martxoaren 17an jakin zen ETA egituraren armagabetzea egingo dela apirilaren 8an. Abenduan Luhuson atxiloturiko Mixel Berhokoirigoinak hitzartzean zehaztu duenez, "gardena" eta "publikoa" izango da ekimena.

Frantziako Gobernuaren partetik dagoen inplikatzeko errefusa ikusirik, jendarte zibilak, hautetsiek eta instituzioek buruturiko armagabetzea izango dela baieztatu du: "Bakoitzak du bere eginkizuna, ez da hierarkiarik bat ala bestearen artean, guztion parte-hartzea behar dugu, bat faltan izanez gero prozesua maingu izango delako". Hala eta guztiz ere, ateak zabalik dituzte eta Frantziako

Gobernuak inplikatu nahi izanez gero, besoak zabalik onartuko dute. "Atea irekia da eta Gobernuak badaki, beraz apirilaren 8a aitzin badu oraindik aukera prozesuari lotzeko", Michel Tubiana bake artisauak azaldu duenez.

Biktimen aitortza eta elkarbizitzaren erronka helburu

Izan Kolonbiako armagabetze prozesuaz hitz egiterakoan, izan gaur Euskal Herrikoaz aritzerakoan, argi gelditu den beste elementu bat dugu ondokoa: armagabetzea bake prozesuaren zati bat dela eta biktimen aitortza eta elkarbizitzaren erronka lortzeko balio behar duela. "Apirilaren 8a egun garrantzitsua izango da, gure geroaren eta elkarbizitzaren oinarri sendoak eraikitzeko eguna izango da, datorren belaunaldiak ezagutu dugun gatazka ez dezaten bizitu", Funosasen hitzetan.

Hau dela eta, armagabetzea baino urrunago begiratzuz, presoak, erbestera tuak eta orokorki biktima guztiak ukan dituzte gogoan, behin baino gehiagotan.

Txalo bero eta luze artean bukatu zen foroa eta ezker eskuin entzuten ahal zenez, momentu mamitsu eta garrantzitsu bat bizitu izanaren sentimenduarekin atera ziren bertan egondakoak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Murrizketak irakaskuntza publikoan



Juan Mari Arregi

Aste honetan, asteazkena hilak 22, EAEn izaten ari diren hezkuntza murrizketen lekuko izango da euskal jendarte. Hezkuntzaren kalitateari eta irakaskuntza publikoari eraso zuzena dira, baita bere langileen egonkortasunaren kontra ere. Eraso hori ikusgai izango da ELA, LAB eta STEILASEk greba deitu dutelako 30.000 langile inguru ari diren sektorean. Grebara joango dira murrizketei eta Espainiako eta EAEko gobernuek inposaturiko politikei erantzuteko, baita hezkuntza sistema propioa eskatzeko ere.

Eta nolakoak dira murrizketak irakaskuntza publikoan? Ikasgelako ikasleen ratioa handitu egin da eta 2.000 lanpostu galdu dira horrekin batera; aldiz, egiturazko 6.000 plaza huts daude. Horri gehitu behar zaio hezkuntza publikoan 10.000 lagun ari direla lanean behin-behineko egoeran, arlo horretako langileen %39. Egoera etsigarria bezain odoltsua da. Erkidegoko exekutiboak azken urteetan ezarritako murrizketen ondorio da hori guztia: 2009ko datuekin konparatuz gero 162 milioi euro gutxiago. Gasteizek hitzartutako irakaskuntza babesten du 23 milioi euro gehiago emanaz, eta aldiz publikoari 4 milioi murriztu dizkio.

Euskal Herriaren etorkizun sozial, ekonomiko, politiko eta kulturala ikasgela horietan dago. Sektore horrek lehentasunezkoa eta pribilegiatua izan beharko luke baliabideak emateko garaian; zaindu egin beharko lukete. Hezkuntzaren oinarria irakasleen eskuetan dago eta haien enplegu egonkortasunak erabatekoa izan beharko luke. Jasaten ari diren prekarietateak hezkuntzaren kalitateari erasango dio. Gure herriak ezin du hain funtsezkoa den hezkuntzaren arloan murrizketarik egin, ezin dugu halakorik onartu.



A LA CONTRA

Talaimendiko txaletaren irregulartasunek ez dute etenik

ZARAUTZ. Orio eta Zarautz artean, Talaimendin eraikitzen ari diren txaletaren hamaikagarren irregulartasuna salatu du Alberto Uriona kazetariak, *A la contra* blogean: Aiako Udalak –EAJren esku– txaleterako sarrera-bidea modu irregularrean legeztatu duela dio. Maite Garrastazu Zarauzko EAJko zinegotzia ari da txaleta eraikitzen, eta Lurren Legea hausten duela salatu dute. Eraikuntza babes bereziko landagunean dago, baita igarobide ekologiko batean ere.

Aste beroa EHUn

Argia / Hiruka

@argia / @HirukaEus

Istiluak izan ziren lehengo astean EHUKo Leioako eta Arabako campusetan. Petardo bat eta ke-pote bat jaurtitzearen ondorioz, langile batek kaltea izan zuen tinpanoan. Pintura eta gorotza ere bota zuten.

EHU

EHUK gertakariak salatu ditu, baita Nekane Balluerka errektoreak ere: “Unibertsitateko langileon eguneroko jarduerak gizaritari zerbitzu publikoa ematea ahalbidetzen du. Milaka pertsona daude gizarte hobea eraikitzen. Gure unibertsitatearen zeregina foro ireki gisa azpimarratu nahi dugu”.

Gertakarien egileak:

“Suaren alarmak aktibatzea zen helburua, ikasleen arreta deitu eta martxoaren 23ko greba-deialdia zabaltzeko. Ekimenak ez zuen pertsonen aurka egiteko helbururik”. Barkamena eskatu diete kalteren bat jaso dutenei. “Biolentzia eguneroko desjabetuok, zapalduok jasaten dugun errealitate itogarria da”.

Kameren aurkako ekintza

Kamerak, ate baten kristala eta ahots eta datu sarea apurtu dituzte kaputxa jantzita zeramaten hainbat gaztek, Gasteizko Letren Fakultatean. EHUK deituta, Ertzaintza pare bat fakultatetan sartu da eta ikasleen motxilak, ordenagailuak eta paperak eraman dituzte.

PRESOAK



104.000

euro denera: euskal preso politikoen eskubideen aldeko Sare herritarrari 2015eko operazioan kendutako dirua ez itzultzea erabaki du Espainiako Auzitegi Nazionalak.

7

egunez, martxoaren 16tik 22ra, Elkartasun Astea egin dute, herritarren babesa eskatu eta dirua berreskuratu asmoz.



TABAKALERA ETA EUSKARA

Tabakalerako zine-eskola zuzentzeko Gipuzkoako Aldundiak zabalduko lehiketa publikoa argitaratu da eta deialdiak ezartzen dituen baldintzen artean ez dago zuzendariak euskaraz jakitea.



PIARRÉS XARRITON HIL DA

Duela 96 urte Hazpainen jaioa, euskal idazle eta politikaria izan zen Xarriton. Aditua zen euskal literaturan, teologian eta filosofian. 1950ean euskaltzain urgazle izendatu zuten, eta 1985ean euskaltzain oso.



KARTZELA ZIGORRA MARIO FERNANDEZI

Mario Fernandez Kutxabankeko presidente ohiari sei hilabeteko kartzela zigorra ezarri dio Bizkaiko auzitegiak bidegabeko jabetzeagatik. Mikel Cabieces Espainiako Gobernuako ordezkari ohiari urtebetekoa, eta Rafa Alcorta abokatuari beste sei hilabetekoa, delitu beragatik.

Indian frogatu dute diru fisikoaren desagertzeak nori egiten dion kalte



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

India *cashless* lurralde bihurtzea erabaki dute hango agintariek, diru moneta fisikoen ordeztu txartel eta diru digitaletara iraganetz, ustelkeria eta merkatu beltza ezabatzeko balioko duelakoan. Egun batetik bestera herritarren eskuetan ziren sosen %86 erretiratu zuten eta ezinegonazabaldutuetan. Iraultzaren kaltetuak laster ikusi dira: nekazariak, beltzean lan egiten dutenak –indiarren gehiengoak–, kaleko saltzaileak eta oro har digitalizatzean barnatzeko arazoak dituzten guztiak.

Mundu guztia entreteniturik zegoela AEBetan lehendakari Donald Trump nola hautatzen zuten begira, egun hartan bertan India lurrikara batek astindu zuen, 1.250 milioi jenderen bizimoduak errotik aldatuko zituen. Azaroaren 8an, gaueko 22:00etan Indiako hedabide nagusietan azaldu zen Narendra Modi lehen ministroa iragartzeko gauerdian bertan baliorik gabe geratu zirela 500 eta 1.000 errupiatuak, herrialdean zirkulatzen zuten diru fisiko guztiaren %86. Modik 50 eguneko epea lagatzen zien herritarrei diru zaharra bankuetan entregatu eta paper berriz ordezkatzeko eta bide batez diru elektronikoz funtzionatzen hasteko.

Prentsa ekonomikoak asko goraipatu ditu Indiak egindako urrats ausartak bere ekonomia monetagabetu –*demonetisation, cashless economy*...– eta modernizatzeko ahalegina. Modik herritarrei azaldu zien horrelako neurri gogorra beharrezkoa zela ustelkeria, diru beltza eta terrorismoaren finantziak ezabatzeko. Aldiz, orain hasi dira munduan barrena zabaltzen hango ahots kritikoak, diotenak aldaketa oso mingarria ari dela suertatzen jende askorentzako, funtsean ahulenendako. Monetagabetzeak eragindako heriotzak ere ehunka omen dira.

Munduko nekazarien eta elikadura burujabetzaren aldeko mugimendua den GRAINEk otsailean plazaratu duenez “moneta gabeko ekonomia kolpe handi bat da ekoizle txikientzako”.

GRAINEk arreta bereziz jarraitzen ditu Asian globalizazio neoliberalak dakartzan aldaketak *Supermarket Watch Asia* buletinean: “Azoka txikietan oinarritzen da milioika jenderen ekonomia eta bizimodua. Eta hala ere, Asiako herrialde askok antolatutako lekuko merkatuak eta horiei esker bizi diren jendeak hondoratzeko politikak. Hong Kongetik hasita Hanoiraino, gobernuak debekatzen dituzte azokak, aldi berean ahalduz korporazio handien indarra eta prezioen eromena kontrolatzen zituzten arauak”. Politika horien adibide muturrekoena da Indiaren erabakia.

Ekonomia diru fisikotik bankak digitalera eta plastikozko dirura –txarteletara– iraganarazteko erabakiak, laster ikusi denez, ez ditu hainbeste kolpatu ustelkeria eta beltzean ari diren enpresa handiak, baizik eta eskala txikiko ekoizleak, laborariak eta karrikako saltzaileak, bankak digitaletan sartzeko zailtasunik handienak dituztenak. Lehen hilabeteetan monetagabetzeak merkataritzaren eta salmenten alor guztiak astindu ditu, baina betidanik diru fisikoan oinarritu direnak modu berezian, nekazaritzan eta deklaratu gabeko lan informaletan ari direnak bidenabar.

India bezalako herrialde zabaltzean izugarri neketsua gertatu da billete zaharrak berriz ordezkatzeko eta gaueko goizera herritarren eskuetan billete guztien %14 besterik ez geratzeak ito-larrian murgildu ditu milioika. Indian salerosketa guztien %95etik gora diru-



tan egiten ziren, saltzaileen %90ak ez zeukan modurik dirua ez zen beste ezer onartzeko, txartelak esaterako. Langileak %85ek jorrala dirutan kobratzen zuten eta populazioaren erdiak kontu korronterik ere ez zeukan inongo bankutan. Modik erabakia jakinarazi osteko bi hilabeteetan milaka tresna elektronikozabaldutuetan salerosketa digitalak erraztu dituztenak, kreditu txartel bidezko salerosketak %10 ugartu dira... baina bitartean kaleko saltzaileei negozioak agortu zaizkie, beraiek bezala erosleak ere dirudik gabe geratuak zirelako.

Indiarrak oro kontsumitzaile bortxaz

Kontraturik gabeko lan *informalak* osatzen du Indiako langileria %93a eta hauek nozitu dute gehien bat-bateko aldaketarekin. Milaka langilek bere enplegua galdu du, GRAINEn txostenak dioenez. “Eraikuntza lanak mantsotu dira. Taxiek, bizikletazko *rickshaw*ek, etxeetako enplegatuek, zamaketariak eta beste askok jasaten dituzte zailtasun handiak. Jorrala egunka kobratzen duen obrero asko lanik eta dirurik gabe geratzen, *alderantzizko migrazioa* hasi da, hirietatik herrixketara itzultzekoa”.

Komertzioan ere, txikiak galtzaile. Karrikako saltzaileak muturreko galanta jaso dute, beren negozioa txanpon fisikoetan oinarritzen baita. Egun batetik bestera eroslerik gabe geratu ziren, eta hurbiltzen ziren bakanei diru xeheak itzultzeko ahalmenik gabe gainera. Aldiz, supermerkatu handiek eta salerosketa



Reddit webgunetik hartutako argazkian, Delhiko kaleko saltzaile txiki bat txartel bidezko ordainketak ere –zerbitzu honetan nagusi den Paytmren bidez– onartzen dituela iragartzen duten afixekin. Narendra Modik bortxaz 'cashless' herrialde bihurtu nahi duen Indiako langile xehe askoren adibidetzat balio du, bere paradoxa eta guzti.

elektronikoan berezitutakoak atera dira indartuak aldaketarekin. Eta Dharmendra Kumarrek GRAINen buletinean idatzi duenez, Modiren gobernuak hasieran aipatzen bazituen ustelkeria, merkatu beltza eta terrorismoa monetagabetzearen arrazoitzat, laster hasi zen benetako argudioa azaltzen: India modernizatzea *cashless economy* bihurtuz.

Funtsean indiarrek oro kontsumitzaile bihurtzeko erabakia datza *plastikozko diruaren* zabaltzearen arrazoiak: jendearen ohiko bizimodua aldatu, saldu eta erosteko moduak, janari eta hornidura oro eskuratzeko zirkuituak. "Indiako pagakizun elektronikoaren liderra den Paytm konpainiak atzean dauka Alibaba e-merkataritzako erraldoi txinatarra. Alibabak dagoeneko badauzka 20 milioi erabiltzaile Indian eta asko dauka irabazteko gobernuaren operazio hone-

tatik. Paytm eta Alibaba bezalako enpresa da indiarren eroste moduak aldatzea". Amazon eta Flipkart ere, Indiako e-merkataritzan lider direnak, diru asko ari dira inbertitzen beren salmentak handitzeko. Ondo posizionatu dira kaleko saltzaileei eta komertziantei independente txikiei konkurrentzia irabazteko.

Exekutibo neoliberalak maite duten *Forbes* aldizkarian Wade Shepardek aitortu du: "Modiren monetagabetze operazioa izan da *shock doctrine* [Naomi Klein enek definitzen duena bezalako] taktika bat, dirutan oinarritutako merkata ezabatze, ekonomia eta populazioa gehiago digitalizatzeko, eta sare ekonomiko formalagoa bilakatzeko, zergak ezartzen errazagoa izango dena".

Indiako nekazari txikien mugimenduek lehen ministroari gutun ireki batean aurpegiratu diote herrialdea-

ren independentzia geroztik hartutako muturrekorik handiena neurriekin eman diela. Behin monetagabetzeko neurriak hartzen hasita, Delhiko agintariekin ez dituzte kontutan hartu Indian gehiengoa diren landa eremuetako jendeak, ez diete erreparatu metropolietan bizi direnen eta beste guztien arteko bizimoduaren ezberdintasunei, ez zaie axola izan urtearen zein sasoitan eta nola ezarri neurriak nekazarien egutegietan gozoago iragan zitezten.

Betiko azoketan baserritarrek bezala erostunek hilabeteotan bizi dituzten estuasunak asko aipatu dira. Aldiz, nekazarien ordezkariak garrantzia berezia eman diote beste honi ere: laborantzan betebeharrak funtsezkoa konplitzen duten kreditu kooperatiba txikien biziraupena jarri da arriskuan, dena irentsi nahi duen banka handiaren mesedetan. ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Edorta Salvador, okina

«Elikagai integralentzat jatorrizko izendapena sortu beharko genuke»

Ore amaz eginiko ogiaren eta ogi integralaren alde onak zabaltzen lan egiten duen okina da Edorta Salvador. Ogiari ospe txarra kendu eta industrializazio aurretik zeuzkan zaporeak itzuli nahi dizkion artisau berritzailea da.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nondik datorkizu sukaldean aritzeko zaletasuna?

Txikitatik. Amak dioten bezala, denetik jaten nuen. Dena nuen gustukoa eta izugarri gozatzen nuen. Ama oso sukaldari tradizional ona izan da beti. Hemen lehengai izugarri onak ditugu, zapore handikoak, eta horregatik gure sukaldaritzak tradizionala oso goxoa da espezia edo gehigarri asko erabili behar izan gabe.

Elikagai enpresa handi zenbaitetan aritu zara lanean. Nolako esperientziak izan dira?

Karrera amaituta Erriberako kontserba-fabrika batean hasi nintzen lanean tomateei analisi mikrobiologikoak, fisiko-kimikoak eta abar egiten. Handik ogigintza alorreko Nafarroako enpresa handienera, Panasara, joan nintzen. Han lantegi bateko ekoizpen arduradun izan nintzen. Baina lehen Panasa zena (Panaderías Navarras SA), 2011ko irailean eskuz aldatu zen. Beraz, enpresa hori jada ez da nafarra, Madrilgo kapital inbertsore batzuen baizik eta egun Estatuko bigarren ogi ekoizlea da, Katalu-

niako Europastray taldearen atzetik. Han zortzi urtez aritu nintzen, Londresera joan arte.

Nola irabazten zenuen ogia Londresen?

Ingelesa hobetzera joan nintzen eta han nengoela enpresa txiki bat antolatu nuen, Edorganic LTD, hemengo produktu ekologikoak hango bezeroei eramateko. Eskaera handia zegoen, eta hemen aldiz, oso krisi latza, beraz aukera ona zen. Nafarroa da nekazaritza ekologikoan estatuan proportzionalki gehien ekoizten duena. 1.300 produktuk dute ekologikoaren zigilua Nafarroan. 107 nekazaritza enpresa badira, kasik 50.000 hektarea lantzen dira eta 29 abeltzain ekoizle ari dira lanean. Beraz, erraza nuen: Pedro Luis eta Anko bezalako markako barazki kontserbak, Ekolo-ko zukuak, Joseneako infusioak, Uxueko Urrutia pastak, Artajoko olioak... produktu bete paletak antolatu eta Londresera eramaten nituen. Bezeroak oso pozik zeuden pakete bakoitzean denetik iristen zitzaielako. Lanbide oso ona da han biziz gero, baina nik Euskal Herrian bizi nahi nuen.

Han aurkitu zenuen ogi artisau zaletasuna?

Bai. Han berehala ikusi nuen hemengoa baino askoz hobea den ogia, ore amaz eginikoa, zaporeduna. Toki askotan saltzen dute. Gainera, oso modan dago nork berea etxean egitea eta ikastaro pila egi-

Edorta Salvador Beasoain de Paulorena

1976, Iruñea

Nekazaritza Ingeniaritza NUPen eta Elikagaien Zientzia eta Teknologia ikasketak egin zituen EHU. Londresen ogi artisauaren arrakasta ezagutu eta hona ekarri zuen. Iruñean Pan Baker akademia zabaldu zuen duela hiru urte. Ikastaroak ematen ditu gaztelaniaz eta euskaraz Euskal Herri osoan, baita Espainiako Estatuan ere. Ogi egiten duten enpresa txiki eta ertainentzako aholkularitza zerbitzuak eskaintzen ditu. Basque Culinary Center-eko irakaslea da.



ten dira. Eta pentsatu nuen: zergatik ez garatu Iruñean? Horregatik itzuli nintze-nean Pan Baker zabaldu nuen.

Akademia antolatzen duzu zauden tokian zaudela?

Bai, hala da. Ni mugitzen naiz ikastaroak emateko. Bi urte hauetan Iruñerrian, Tuteran, Obanosen, Lodosan, Bilbon, Tafallan, baita Logroñon, Madrilen, Ibizan, Bartzelonan... leku pila batean aritu naiz ikastaroak ematen.

Norbanakoak eta profesionalak formatzten dituzu?

Okindegiaren ekoizpen antolakuntza-aren aholkularitza eta formakuntza zerbitzuak eskaintzen ditut okindegi txiki eta ertainentzat. Hori Euskal Herriko edozein tokitan egiteko prest nago. Hemen azkar mugi zaitezke Tuteratik Bilbora arazorik gabe. Lehenbiziko urratsa ebaluazioa egitea izaten da. Ondoren hobekuntzak proposatzen dira eta ore amaren eta beste zenbait produktu berriren garapena sustatzen dut. Aste gutxi batzuetan egiten da ibilbidea.

Zertan hobetu dezakete enpresa txikiek?

Hasierako lana egiten duten ogia hobetzea da eta gero, poliki-poliki, ikusiko dute zer ogi mota berri sartu nahi dituzten merkatuan. Hobe ogi mota gutxi eta onak, asko eta erdipurdikoak baino. Irin nahasketa desberdinak eginez eta itxura berriak emanez produktu sorta interesgarria lor dezakezu.

Basque Culinary Center-eko irakaslea zara.

2015-2016 ikasturtean hasi nintzen lehengaien materia ematen. Produktuak, jatorria, ezaugarriak, sailkapena... hori guztia da lehen mailako ikasgai honetan ikusten duguna. Oso gai oinarritzakoa da eta atsegina, aldi berean. Hainbat masterretan zenbait ikasgai ematen ditut, eta nola ez, ogi ikastaroak bai ikasleentzat bai Culinary Clubeko kideentzat ere.

Guk nolako harremana daukagu ogiari-kin?

Jendea esnatzen ari da. Orain arte hemen zeuden enpresek egiten zuten ogia besterik ez genuen jaten eta zapore horretara ohitu gara. Jendea konturatu da ogiak ez daukala lehen zeukan kalitatea, nahiz eta ekoizleak ongi egiten saiatu.



Mundu zabalean toki askotan dagoen ogi onarekiko zaletasuna hona iritsi da, hemen gelditzeko. Jendeak gero eta kontzientzia handiagoa du eta ogi ona erosi edo egin nahi du.

Gero eta ospe txarragoa du ogi zuriak?

Bai, mediku eta nutrizionista batzuek diote osasunerako txarra dela eta lodi-tzen duela. Ogi zuria ez da txarra, baina hobe da integrala, noski. Alabaina, ogi osasuntsuak ere lortu daitezke irin mota desberdinak nahastuz. Zalantzarik gabe gure digestiorako hobeak dira hartidura moteleko ogiak. Ogiaren onurak aldarrikatu behar ditugu.

Eta glutena horren txarra da?

Orain badirudi glutena Satanas dela.

Alde batetik zeliakoak daude, diagnostikoa daukate eta gariak duen gluten proteina ezin dute hartu. Bestalde, bada jendea intolerantzia duena. Ez dira zeliakoak, baina glutenak ez die onik egiten. Kontua da William Davis mediku estatu-batuarrak *Wheat Belly* liburua argitaratu ondoren Miley Cyrus, Gwyneth Paltrow eta beste *celebrity* batzuek glutenik gabeko dietak modan jarri dituztela eta batzuek itsu-itsuan baztertzea erabaki dutela osasun arrazoirik izan gabe.

Ore ama zer da?

Urez eta irinez egindako hazkuntza-lidikoa da, non zerealek berezkoak dituzten legamiak bizitu egiten diren. Legamia horrek ahalmena hartzen du gero ogiaren ore hartitzeko. Altxagarri indus-



trialik erosi behar izan gabe egiten dugu ogia horrela. Alde horretatik kefiraren antzekoa da. Zati bat kentzen duzunean ogi berri bat egiteko, irin eta ur pixka bat gehiago jartzen duzu hazkuntza-likido horretan eta horrela ez da inoiz bukatzen.

Ore amaren altxagarriak industria-lak baino motelagoak direnez, kantitate eta denbora gehiago behar duzu emaitza ona lortzeko. Hartzidura prozesu motel horretan parte hartzen duten bakterioengatik garatzen dira zapore azidoak eta laktikoak. Horrek ematen dizkio zapore eta testura desberdinak gure ogiari. Ogi industrialak egiteko hiru ordu baino ez dute behar eta horregatik zapore gutxiko ogiak dira. Ore amarekin lan egiterakoan tenperaturak eta atse-den denborak errespetatu behar dituzu.

Irin zuri nuklearrik ez

“Ogi integrala askoz hobea da denontzat, eta bereziki obesitatea, diabetesa eta bestelako hainbat gaitz dituztenentzat. Osasun arazorik ez dugunontzat ez da traba ogi zuria jatea, baina hala ere hobe da hartzidura luzekoa eta integrala, edo behintzat irin nahasketa duena jatea, eta ez irin zuri nuklearrez soilik egina dagoena”.

Idiazabal gaztarekin

“Ogiak zereal zaporea izan behar du, baina ez da nagusitu behar beste janarien gainetik. Produktu on baten laguntzaile gisa, ogi ona bai baina neutrala behar da gehienetan, adibidez Idiazabal gazta on batekin jateko”.

Horrela egiten zuten ogia gure aitona-amonek?

Farmazian legamia erosten zuten eta egindako oretik zati bat gordetzen zuten hurrengo egunetan ogia egiteko. Ore legamiaduna zen gordetzen zutena, baina ez ore ama edo hartzidurarako hazkuntza-likidoa. Guk naturatik zuzenean hartutako legamia erabiltzen dugu. Gariaren edo zekalearen azalean legamiak daude lotan. Ale osoa irin bihurtuta, ura jarritz gero legamia horiek esnatu egiten dira.

Etxean ez da egunero ogia egiten, horregatik ore ama hozkailuan gordetzen da prozesua moteltzeko eta denbora gehiago irauteko. Edo izoztu daiteke. Nik erabiltzen dudana, esate baterako, 2013ko uztailean egindakoa da. Irina

beti berria da, baina hasieratik berdina da anduia.

Kalitatezko ogia zer da?

Kalitatea oso kontzeptu erlatiboa da. Industriek egiten duten ogia kalitatezkoa da eta kalitate arau guztiak betetzen dituzte, ISO, BRC, IFS eta dauzkaten zigilu guztiek frogatzen duten bezala. Ezaggarri organoleptikoez hitz egiten badugu, aldiz, kalitate hobea dute hartzidura moteleko ogiek eta harrizko errotetan ehotako irina dutenek. Zentzu horretan, ogi ona da zereal usaina duena, eta ez legamia usaina; ukitutakoan azala eta mamia irmoa eta aldi berean biguna duena. Ogi industrial askorekin gertatzen dena da mamia nahi duzula saltsa batean busti eta hor gelditzen zaizula, dena deseginda, papurtuta. Ogi on baten mamiak xurgatu egiten du saltsa eta hala ere kurruskari jarraitzen du jaten duzunean.

Unean egosten den ogiak ere goxoa dirudi mementoan...

Unean egositako azalaren usaina da gustagarri zaiguna, baina irekitakoan legamia usaina dario eta hozterakoan bigun gelditzen da, batere sendotasunik gabe. Horrelako ogiak erosten ditugunean barruko mamia kentzeko beharra sentitzen dugu desatsegina delako, eta gainera horrek bai, horrek loditzen du.

Okindegi arruntetan saltzen den ogi integrala ona da?

Legeak argi dio zer den ogi integrala. 1137/1984ko errege dekretoak zazpigarren artikuluan dio ogi integrala bihi osoko irinez egindako ogia dela. Gaur egun irin zuriz egindako oreari zahia botatzen zaio, baina hori ez da integrala, zuntzez aberastutakoa baizik.

Zein da aldea?

Gari aleak hiru atal ditu: barruko mamia edo zuringoa, azalak (zahi-zabala eta barneko azalak) eta ernamuina. Ogi aberastutakoan irin zuria erabiltzen dute (alearen mamia) eta gero botatzen diote zahia, baina hirugarren osagaia, ernamuina, falta da. Azken hori oso aberatsa da B eta E bitaminatan, mineralean, koipean, oinarritzko aminoazidoetan... eta bertan biltzen da bizi-indarra. Ernamuina landare berriaren sorburua da. Bihi osoko ogian, ogi integrealean, dena dago.

Zergatik gertatzen da iruzur hori?

Ez dutelako batere kontrolatzen. Frantzian ogiak integrala izateko irin guztitik gutxienez %60 behar du integrala izan, bestela iruzurtzat hartzen da. Alemanian %90. Espainiar Estatuan %100 behar du, baina inork ez dio kasurik egiten. Gainera, hemen ogia saltzen duten denda guztiak okindegiak dira, nahiz eta ogirik ez egin. Beste toki batzuetan, Frantzian esate baterako, ezin du horrela izan.

Kontrolatu behar dutenek beste aldera begira jarraitzen duten bitartean, horrela jarraituko dugu. Iruzur ikaragarria da eta negozio handiak daude hemen. Elikagai integralak babestu behar dira. Jatorrizko izendapen bat edo horrelako zerbait sortu beharko genuke.

Eta erabiltzen den irina nolakoa da?

Nafarroan, adibidez, Harriasa eta Guria enpresak dira hemengo ia irin guztia egiten dutenak eta kalitate handiko produktuak merkaturatzen dituzte. Irin mota desberdinak erabiliz, ez soilik irin zuria, oso ogi onak lor daitezke. Bestalde, orain antzinako gari motak ari dira berreskuratzen, ez dute bolumen handia ematen hartzitzerakoan, baina oso zapore ona bai. Erriberan, esate baterako, bertakoa den Aragoi 0.3 mota



“Mundu zabalean toki askotan dagoen ogi onarekiko zaletasuna hona iritsi da, hemen gelditzeko”

deitzen dena ari dira ekoizten eta oso interesgarria da. Beste toki batzuetan, Asturiasen, adibidez, Escanda izeneko gari mota, espeltaren familiakoa ari dira lantzen. Gari mota horietako batzuek horren ale txiki eta gogorra dutenez, intsektuek ez diete kalterik egiten eta ez dago zertan produktu kimikorik erabili, horregatik ekologikoa ekoiztea oso bideragarria da.

Errotak ere garrantzitsuak dira?

Oso, harrizko errotarekin gari ale osoa ehotzen delako. Orain etxerako errota txikiak lortzea oso erraza da. Interneten asko saltzen dira.

Zein da ikusi duzun ogirik arraroena?

Daniel Jorda okin katalanak eginiko ogi bereziak, marrubizko txiklearen zaporea duen ogia edo mojito ogia adibidez. Arte Ederrak ikasita eta okin familiakoa izanik, bi zaletasunak elkartu ditu Jordak. *Panes creativos* (Sormenezko ogiak) liburua

atera du eta oso lan polita egiten ari da hainbat jabetzetan.

Etorkizunean zertan ibiliko zara?

Ikerketan jarraitu nahi nuke, ogiari ospe txarra kendu eta merezi duen lekua berriaz emateko. Industrializazio aurretik ogiak zeuzkan ezaugarri organoleptikoak berreskuratu behar dira. ■

www.bertozale.eus



Nafarroako
Bertsolari
Txapelketa
2017



AGOITZ
Kultur Etxea
Martxoak 26, 17:30

FINALAURREKOAK

AMAR KARRIKA



JULEN ZELAIETA



JOANES ILLARREGI




EINEKO FERNANDEZ



PATXI CASTILLO



OIER LAKUNTZA





5.657 aztnugal

Torturaren errealitate beltzak badu zenbakia Euskal Herrian: 5.657.

Badu zenbakia, nahiz eta inoiz ez dugun praktika lazgarri eta sistematiko horren benetako dimentsioa ezagutuko, beranduegi da jada horretarako. Beranduegi da urteak eta urteak igaro direlako inpunitate osoz. Urteak eta urteak non bizipen gogor hori jasan duen jende asko erabat babesgabe eta inolako helduleku barik egon den. Non justiziaren zaintzaile omen diren epaitegi eta erakunde publikoetan topatu duten salaketarako traba eta etsai handiena. Egoera traumatikoa indibidualki eta isilpean kudeatu beste aukerarik ez du izan milaka biktimak, jendartearen babes ofizialik gabe.

Euskal gizartearen erantzukizunari begira jartzen gaitu horrek. Halaxe azaldu du Sandra Barrenetxeak *Berria* egunkariari eskainitako elkarrizketan. 2010eko irailean atxilotu zuen Guardia Zibilak Barrenetxea, Ekineko kidea zelakoan. Inkomunikazio garaian jasan-dako tortura bortitzak salatu zituen eta egunotan lau guardia zibil epaitu dituzte salaketa horien harira (epai-bidetik asko itxaron ezin daitekeen arren). Haren kontakizunak pasarte latz asko eta asko ditu, besteak beste, emakumeek jasandako tortura bereiziak, genero erai-kuntzari oso lotuak eta uneoro bortxa-ketaren mehatxupean. Hala ere, elkarrizketan kontatutakotik barrenak gehien mugitu dizkidana gizartearen jarrerari buruz dioena da: “Mina areagotzea” ekarri diola, alegia. Aitortza faltak “frustrazioa eta erru sentimendu handia” eragiten dituela azaltzen du, biktima ahultasun egoerara eramaten duela; halaber, azpimarratzen du ondorio latzak dituela gizartean biktimaren bizitzarekiko arduragabekeria sumatzeak.

Horregatik ematen dute hainbeste min torturari ezikusiarrena egiten dioten adierazpenek. Eta min eman



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Min eman ziguten Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramaleak eta Estefania Beltran de Heredia Segurtasun sailburuak, Ertzaintzaren torturak ukatzeko sententzia judizial eza argudiatu zutenean. Zigorgabetasuna ontzat eman eta tortura denuntziei sinesgarritasuna kentzea izan baitzen

ziguten Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramaleak eta Estefania Beltran de Heredia Segurtasun sailburuak, Ertzaintzaren torturak ukatzeko sententzia judizial eza argudiatu zu-

tenean. Zigorgabetasuna ontzat eman eta tortura denuntziei sinesgarritasuna kentzea izan baitzen. Sortu alderdiak torturak salatzeko elkarretaratze performatiboak egin zituen, ertzain-eteak atzamarrarekin adierazita haren ardura irudikatzeko asmoz. Horren erantzunean etorri ziren bi ordezkari publikoen adierazpenok, Ertzaintzak torturatu izana ukatuta. Eusko Jaurlaritzaren enkarguz Paco Etxeberría auzi medikuak zuzendutako ikerketak 4.009 tortura kasu identifikatu ditu, Nazio Batuen Istanbulgo protokoloari jarraiki. Horietatik 310 kasu dagozkio Ertzaintzari. Euskal Memoria erakundeak, berriaz, 5.657 tortura kasu egiaztatu ditu, 407 Ertzaintzaren esku.

“Gertatutakoaren berrikusketa kritikoa” bezalako terminoak hainbestetan entzuten ditugun honetan, badirudi guztia ondo doala atzamar guztiek norabide bakarrean seinalatzen dutenean, hau da, begirada guztiak ezker abertzalearengan jarrita daudenean. Besterik gertatzen da, ostera, komisarietako kontakizun ilunak astintzen hasi eta gatazka mingarri honetan batekoen eta bestekoaren ardura aldarrikatzen denean. Giza eskubideak komuneko paperaren pare geratzen dira orduan, errelatoa eta atzera begirako gatazkaren argazkian eragile bakoitza nola agertuko den dagoenean jokoan.

Tortura zigorgabetasunaren iluntasunetik argitara ateratzea gizarte gisa egiteke dugun zerbait da. Horregatik, premia bizikoak dira lekukotzak bildu eta frogatuko dituzten aipatu ikerketak, baita salaketa eta kontzientziaziorako ekimen eta dinamika guztiak ere. Bilbo-kaleak gurutzatu zituen manifestazioak aldarrikatzen zuen bezala: aitortza, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea zor diegu torturatu guztiei. Eta gauza bera zor diegu gure buruari, gure jendarteari. ■

Kapitalismo berdearen nora eza

par Amerikako kritiko marxista Frederic Jamesoni leporatzen diote esaldi esanguratsu hau: "Errazagoa dugu munduaren bukaera irudikatzea, kapitalismoarena baino". Ez zaio arrazoirik falta. Non dago koska? Kronologian edota iraunkortasunean ez behintzat. Kapitalismoa eredu ekonomiko berria duela 300 urte inguru abiatu zen. Denbora urria, gure jendartearen historian.

Etsai indartsuen falta ere, ez du izan. Teoriko eta iraultzaile antikapitalista ugari ezagutu ditugu. Hastapenetan *ludditak*, makinismoaren aurka altxatzen ziren artisauek, baina gero mundu osoan ezagutu ditugun langile sindikalistek, emakumeak ahaztu gabe, mugimendu indigenak eta nazionalak, planeta osoan kapitalismoaren amaiera bilatu dute.

XX. mendeko iraultza sozialistak, batez ere duela mende bat boltxebi-keek gauzatu zutena, ez dira gauza izan kapitalismoa gairatzeko eta egun biz-pahiru herrialde kenduta kapitalismoak beste guztietan dirau bere krisiekin. Nago, kapitalismoaren "erresilientzia"k muga ekosistemikoetan topatu duela bere akabera.

Yayo Herrero lagun ekofeministak dioenez, pairatzen ari garen krisia ez da ekonomikoa edo ekologikoa bakarrik,



Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO KIDEA

Natura eta bere zikloak kapital berri bihurtuz, naturaren prozesu ekosistemikoak ere finantziazioan eta merkataritza dinamiketan sartuz, krisi ekologikoaren soluzioa iragarri dute

zibilizazio krisi bati aurre egiten ari gatzazkio (ikus *La gran encrucijada*). Ikuspuntu ekologiko batetik, XXI. mendean sarturik, dinamika edo krisiaren kausa nagusi bi sumatzen ditugu: bata aldaketa klimatikoa (beroketa globala, ozeanoen azidifikazioa, ekosistemen

eta gizarte hondamendiak) eta bestea petrolioren gailurra (lurrean zegoen petrolioaren erdia erreta, energia merkearen garaia amaitu dira).

Garapen sostengarriaren leloa agorturik, ekokapitalismoa edo ekonomia berdea asmatu berri dute irtenbidetzat. Natura eta bere zikloak kapital berri bihurtuz, naturaren prozesu ekosistemikoak ere finantziazioan eta merkataritza dinamiketan sartuz, krisi ekologikoaren soluzioa iragarri dute. Ez, orain arte bezala, energia eta materialen merkataritza librea medio, CO2ren isurketak eta aldaketa klimatikoaren arriskuak hartuz baizik, baso eta oiha-nen zerbitzuak eta bestelako naturaren "zerbitzuak" ikusezinezko eskuetan jarritz, krisi ekologiko/ekonomikoa gaindituko da, kapitalista berdeen ustez.

Aldiz, Daniel Tanuro (*El imposible capitalismo verde*) sindikalista belgikarrak ekokapitalismoaren kontraesanak azalarazi ditu. Etekinen pilaketa eta produkzioaren hazkundera baldin bada helburu nagusia, krisi klimatikoa bizkortuko da. Beroketa globala jaisteko, produkzio gutxiago eta lokala behar dugula dio. Eta burura etortzen zaizkit Petronor, erraustegiak eta AHTren proiektuak. Katu kapitalista, erbi ekologizatatzat saldu ez, mesedez! ■

blogetan!
BLOG IZARREN BILA

EUSKAL BLOGARIEN II. TOPAKETA

Antolatzailea:

AZKUE
Fundazioa

Laguntzailea:

ARGIA

MARTXOAK 30, OSTEGUNA
Bilboko Euskararen Etxean (15:30-20:00)
Hitzaldiak
Blogintza inkestaz (Azkue Fundazioa)
Mahai-inguruak
Garapena, posizionamendua eta baliabideak
Sustapena, publizitatea eta monetizazioa
Sari-banaketa ekitaldia

SARRERA DOAKOA

Eman izena! www.blogetan.eus/jardunaldia

Hobe isilik



Xabier Mendiguren
IDAZLEA
@xme64

Lagun batek horrelaxe esan zidan behin: “Nire amonak, erdaraz, isilik egoten besterik ez zekien”. Esaldia buru barruan dantzan geratu zitzaidan, luzaroan. Itxura batean, sinplea bezain argia da perpausa: lagun horren amona euskaldun hutsa zen, elebakarra, eta ez zekien erdaraz hitz egiten. Pixka batean pentsatzen jarritz gero, ordea, berez diotena baino gehiago adierazten dute hitz horiek, esangura sakonagoak topa diezazkiokegu, ageriko esanahiaren azpiko azpildurak.

Adibidez, esaldiak, hizkuntzen ezagupenaz harago, botere-harreman bat adierazten du. Gaztelaniadun bat, inork espainolez ez dakien leku batera baldin badoa, ez da isilik eta lotsatuta geratuko; ez behintzat euskaldunen artean; errazago da ozen hitz egiten imajinatzea, bolumena igota halako batean miraria gertatu eta norbaitek ulertuko duelakoan. Euskaldun gizajo bat trantze horretan imajinatzeke, ordea, ez da irudimen handirik behar, nahikoa da memoria historiko apurra: medikuarenean, edozein leihatilaren aurrean, parean aginte-makilatxoren bat daukan edonor tokatuta: dela guardia zibila, dela Iberdrolako teknikaria, dela kazetari alkatxofaduna. Eta amona beti isilik, badaezpada ere.

Pentsatzen segituta, generoen arteko hierarkia ere salatzen du esaldiak. Hau da, amonaz ari gara, ez aitonaz. Emakumea errazago isildu dute

beti. Badaki berak ez duela botererik, larderiarik, eskumenik. Isilik egotea tokatzen zaiola. Bazterrean, molestaturako ez duen lekuan. Lotsarazita, sarri.

Azken asteetako adierazpen eta gertakariak nire lagunaren amona oroitarazi didate, beste behin. Adibidez, amona horrek, bere etxe aurreko ataria zoragarri garbituta ere, ez luke balioko herriko kaleak eskobatzeko. Zeren barrendero izateko EGA eskatzea gehiegizkoa omen baita (inon inori eskatu ote diote ba halakorik?), baina, esan gabe esaten ari zaizkigu, gaztelaniaz jakitea aldez ezinbestekoa da eta izango. Zeren gure agintari abertzale eskuzabalek euskaraz atendituko gaituen norbait jarri nahi dute leihatila gehienetan, indigena elebakar gizajorik ia geratzen ez den arren, euskaltzale fanatiko egoskorrak gehiegi ez sumintzeko, goxoki bat ematen zaion ume petralaren gisan, baina, ondorioztatu behar dugu, administrazioak erdaraz funtzionatzen jarraituko du, sekulorum sekulotan, gizarteak bezalaxe.

Nire lagunaren amonari espainolei buruzko iritzia eskatu baliote, seguru nago ez zukeela hitz txarrik esango. Azken batean, haiek dira daukatenak, dakitenak, dezaketenak. Hark, erdaraz, isilik egoten besterik ez zekien. Guri, berriz (erdaraz jakin bai baina beste hizkuntza batean egiten tematzen garenoi), argi esan zaigu: euskaraz ere, zenbait gairi buruz, hobe duzue isilik egon. ■

Bakerik ez dugu



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Larunbat eguzkitsuetan, jendea alde zaharretara joaten da erosketaren bat egin eta pote bat hartzera, haurrek bazterrak nahasten dituzten bitartean. Pasa den martxoaren 11n, Iruñean, herri mugimenduak jasotzen duen errepresioaren aurkako manifestarien eta Espainiako poliziaren arteko istiluek bezeroen eta auzokideen egunerokotasunaren armonia aztoratu zuten.

Ahots ugari gaitzetsi dute manifestarien joakera. Ez dira horrela ibiltzeko garaiak. Bizikidetzak baketsurako garaia da orain.

Larunbat eguzkitsuetan, gehiengoak, garagardobati helduta, ez da zapaldua sentitzen, ez langile

desjabetu, ez emakume eta ez beste ezer. Eta ez du kaleetan biolentziarik ikusi nahi. Baina bakerik ez dugu. Gudan murgilduta gaude, kapitalismoak bizitzari berari deklaratu baitzion guda jao zen egunetik.

Egun hartan, Iruñean, bakerik ez dagoela ikusarazi zuten gazteek, eta nik ez dut uste hori egin ez dezaten exijitza zilegi denik.

Sistema eraldatzeko antolatzen direnek beharrez egiten dute topo errepresioarekin bere forma guztietan, sistemaren funtsa den biolentziarekin. Haiei guztiei, Errenteriako hiru gazteei, elkartasuna. ■

Ezkio-Itsasoko tragikomedia

1. Bihoa aurretik ezkiotarra naizela. Itsasoren desanexioaz hitz egiten da, eta jende askok uste du bere garaian Ezkiok Itsaso bereganatu zuela. Baina inoiz ez zen egon anexiorik, beraz, ezin orain desanexiorik egon. 1964ko agiri-tan “*fusión voluntaria*” aipatzen da.

2. Bat-egite hura “borondatezkoa” izan zen ala agintari frankistek beharturik elkartu ziren bi herriak? Itsasori banatzeko eskubidea aitortu zaio Gipuzkoako 2/2003 Foru Arauak ezartzen duen salbuespenagatik, alegia, “herritarren iritzia kontuan izan gabe hirurogeiko hamarkadan elkartu ziren udalerriek berriro banatu nahi badute...” ez dituztela 2. 500 biztanle izan behar. Noski, 1964an herritarrei ez zitzaien galdeketa egin eta herritarren botorik gabe hautaturiko udal-ordezkariek onartu zuten bat-egite hura; baina, antza denez, ez zen Ezkion eta Itsason aurkako iritzi sendorik agertu; benetan nahi izan ez zuena (Gabiria) ez zen elkartu.

3. Ez pentsa ia 50 urte elkarrekin konpondu ezinik eman ditugula bi herriok, bai zera! Nahiz eta udalerri disfuntzional samarra izan, sakabanaketa geografikoagatik batez ere, bizikidetz nahiko txukuna izan dugu ia beti, desadostasun eta kexa handirik gabe. Baina 2013ko uda ostean, Franco hil eta 38 urtera, benetan indartsu agertu zen Itsason Ezkiotik apartatzeko gogo. (Esan ezin da egin, baina pentsatu bai, zenbait hilabete lehenago izandako liskar pertsonal batzuk gabe, orain ez ginatekeela honetaz arituko). Baina narratiba ofizialaren arabera, udal partekatua bihurtu zen itsasoarren arazo guztien iturburua.

4. Itsasok arazoak zituela? Bai, Ezkiok edo Gipuzkoako landa-herri txiki askok dituztenen oso antzekoak, eta, nire ustez, udal propioa ez izatearekin



Iñaki Mendiguren

ITZULTZAILEA ETA IDAZLEA

Galderak Foru Aldundiari: Aldundian inork ez zuen susmatzen hau gerta zitekeenik? Nola murgildu ziren gure bi herriok hain prozesu luze eta neketsuan 2/2003 Foru Arauaz berme juridiko handiagorik gabe? Eta zer gara eta non gaude orain? Aldundiak bulartsu eta ozen esan du eskumena berea duela eta Itsaso udalerri dela... Baina Administrazio Zentralari dagokion guztian Ezkio-Itsasoko Udala gara

zerikusi gutxikoak. Baina, elkarriketarako aukerarik gabe, *de facto* banatzeko bidea hartu zuen Itsasok. Egungo egoeraren argitan, hobe zuhurrago jokatu izan balitz, zauriak ireki eta giroa nabarmen gaitzotu baitzen.

5. Ikusita Itsason bereizteko joera ari zela nagusitzen eta bazutela horretarako lege-zirrikiturik, hori errespetatzea erabaki zen Ezkion. Eta, “dibortzio” gehienetan bezala, tirabiratsu samarra izan zen negoziazioaren ondoren, banaketa adostu genuen, baina gauza asko partekatzen jarraituz ekonomikoki bideragarriak izateko. Itsason herri-galdeketa egin eta “berriro udalerri izatearen” (sic) alde egin zuen gehiengoak: 88 boto (aurka 26, zuriak 4, abstentzioa 21). Hasiera-hasieratik Foru Aldundiaren bedekaziazio guztiak izan zituen prozesuak.

6. Suziri, kanpai hots eta koktel artean, aurtengo urte-hasieratik baikoitzak geure biderei ekin genion, eta Itsasok Toki Erakundearen Erregistroan udalerri gisa sartzea eskatu zuen. Eta ezezkoa etorri da. Arrazoia? 27/2013 Legearen arabera, Espainian gutxienez 5.000 biztanle behar direla udalerri berri bat sortzeko (Itsasok 165 ditu). Hau nahi bezala konponetzen ez bada, etsipen eta buruhauste ederra!

7. Galderak Foru Aldundiari: Aldundian inork ez zuen susmatzen hau gerta zitekeenik? Nola murgildu ziren gure bi herriok hain prozesu luze eta neketsuan 2/2003 Foru Arauaz berme juridiko handiagorik gabe? Eta zer gara eta non gaude orain? Aldundiak bulartsu eta ozen esan du eskumena berea duela eta Itsaso udalerri dela... Baina Administrazio Zentralari dagokion guztian Ezkio-Itsasoko Udala gara. Itxurakeriak alde batera utzita, nola eta noiz arte funtziona liteke horrela? Eta azken galdera: konturatzan al da Aldundia Itsasori buruz egiten duen urrats orok eragina duela Ezkion ere? Bada, jakin beza egonezina handi samarra dela hemen. ■

4. argitaraldia

BIZI BARATZEA

garaian garaikoa garaiz.

Jakoba Errekondo

Zure baratzea sortzeko, moldatzeko eta eusteko behar duzun liburua



Eskatu zure liburua

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

23 €

19,50 €

harpideentzat

AURKEZPEN-SOLASALDIAK HERRIZ HERRI

Antolatu zure herrian

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu:

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
www.bizibaratzea.eus

184 orrialde (21,5x25 cm)

Ikastetxe hauetan etsaminik gabe ebaluatzen dute

Azterketa eta noten eskema tradizionala alboratu eta ikasleen garapen osoa aintzat duen ebaluazio hezigarria lantzen dute gero eta ikastetxe gehiagotan. Euren esperientzia kontatzeko eskatu diegu horietako lauri: Langile ikastetxe publikoa, San Bizente ikastola, Arrankudiagako eskola txikia eta Geroa eskola librea.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Langilen, "lan tratuak"

Haur eta Lehen Hezkuntzako 727 ikasle ditu Hernaniko Langile ikastetxe publikoak, laster 50 urte beteko ditu eta sorreratik bertatik ikaslearen garapen prozesuan oinarritu dute ebaluazioa. "Garapena bere osotasunean hartzeak eskatzen du edukiez gain jarrera, harremanak, sormena, zailtasunei aurre egiteko gaitasuna... ere kontuan hartzea", azaldu digute Ixabel Arin zuzendariak eta Ana Quevedo ikasketa buruak. Ebaluazioa ez da une jakin bateko neurketa, jarraitua baizik, bakoitzaren prozesua egunerokoan doaz baloratzen, ikasle bakoitzaren abiapuntua eta egoera ezberdinak direla aintzat hartuz: nola ari da ikaslea taldean eta bakarka? Zein material erabili du eta zein proposamen egin? Saiatu al da? Ze lan ohitura eta interes ditu? Nolako harremanak ditu helduekin eta berdinekin? Zein ardura? Zenbaterainoko autonomia?... Behaketaren bidez itemak betetzen eta oharrak hartzen doa irakaslea, eta ondoren irakasle taldea bilduko da, denon ikuspegia biltzeko.

Unitateka edo gaika egiten dute lan, hiru galdera abiapuntu: Zer dakigu (aurretik)? Zer jakin nahi dugu? Zer lortu dugu (gaia landu ondoren)? "Lan tratuak" egiten dituzte gai bakoitzaren hasieran: alegia, zer landuko duten eta zein helbururekin, ikasleak jakin dezan zer den amaieran lortu beharrekoa. Bukae-ran beti dago produkzio bat: izan dai-teke beste ikasleei landutakoa azaltzea,

edo gurasoei, edo idatzizko lan bat... eta "gakoa da azken produkzio hori ikasleek ez dutela bizi kontrol gisa, landutako guztiari amaiera bat emateko modu gisa baizik". Produkzio horrek bigarren parte inportantea dauka: ezer ez da perfektua, eta gaztearekin batera landuko du irakasleak nola hobetu eta osatu egingakoa. "Asmoa da ikasleak lorpen sentazioa izatea eta bakoitzak bere mailan egitea aurrera. Ezinean dabilzan ikasle batzuek nahi dute gainerako guztien pare aritu, nabarmendu gabe, eta hori ere landu beharreko prozesua da, gure laguntza beharko dutelako, baina laguntza beti da bera ondo sentitzeko eta besteen aurrean arrakastatsu agertzeko. Denek iritsi behar dute amaierara: denek egingo dute errezeta, ipuina edo dena delakoa, bakoitzak bere prozesuaren arabera". Azpimarra ikaslearen trebezietan jartzen dute, motibagarriagoa delako, eta zailtasunak dauden arloetan, zailtasun gisa planteatu ordez, elkarrekin ikusten dute aurrera nola egin. "Dena den, frustrazioa ere landu behar da: denean ez gara onak eta konturatu behar gara, hutsune horiek lantzeko".

Horri guztiari gehitzen zaizkio autoebaluazioa eta koebaluazioa (ikasleak ondokoa ebaluatzen du) eta "irakasleok ere ebaluatzen dugu gure burua". Ikasle eta familiekin ez dute notarik jasotzen, edukiez gain hasieran aipaturiko arlo ugariak barne hartzen dituen ebaluazio globala baizik. Familiaren iritzia gehituta osatuko da balorazioa eta ikaslearen beharren arabera jarriko dituzte indarrak autonomia arloan, harremanetan, matematiketan...

Kanpo ebaluazioez galdetuta, ikasleek izan ditzaketen beldurrak kentzen dizkietela esan digute, "baina ez diegu garrantzirik ematen eta argi daukagu ez dutela gure jarduna baldintzatuko, azterketa hauek ez baitiote eguneroko dinamikari erantzuten".

San Bizenten, 1, 2 eta 3 aldagaiak


Oiongo San Bizente ikastolan, duela bost urte hasi ziren Lehen Hezkuntzan ebaluazio hezigarria aplikatzen, Gema Berzal zuzendariak azaldu digunez: "Bi hutsune nagusi antzeman genituen: batetik, ikasleek ez zuten ongi ulertzen ariketekin zehazki zer egin behar zuten eta zertarako, eta komunikazioa hobetzen lagundu digu eredu berriak, irizpideak finkatzen, ikasleek jakin dezaten momenturo zertan ari diren eta guk jakiteko zein unetan dauden. Bestetik, hezkuntza ildo estrategiko bat falta zitzaigun eta orain argi daukagu zer eta zertarako ari garen". Hilero diseinatzen dute irakasleek hilabete horretan egingo duten dinamika kooperatiboa, proiektua edota ekintza, eta protokolo bat jarraituz behatuko dituzte hilabete horretako ekintza, irakaslea bera, taldea eta ikasleak. Egunerokoa, dena da proba, ahoz, idatziz edo bestela, probak ez daudelako lotuta hiruhileko epe artifiziale-tara edo nota jartzeko beharretara, erritmoak eskatzen duenera baizik: "Ebidentziak jasotzen goaz, ikaslea non zegoen, zer bide egiten ari den eta orain non dagoen. Galdera eraginkorrek egitea da gakoa: Ados al zaude ondokoak esandakoarekin? Zer proposamen berri egingo zenizkioke? Zertarako balio dizu egiten ari zarenak?"

ZEIN IZANGO DA NIRE HURRENGO ERRONKA?

ZER IKASI DUT ETA ZERTARAKO?

ZER HOBETU NAHI DUT?

ZEIN GAITASUN DITU?



- » **IXABEL ARIN ETA ANA QUEVEDO, LANGILE:**
 “Gakoa da azken produkzio hori ikasleek ez dutela bizi kontrol gisa. Asmoa da ikasleak lorpen sentsazioa izatea eta bakoitzak bere mailan egitea aurrera”
-
- » **GEMA BERZAL, SAN BIZENTE:**
 “Ikasleak metakognizioa barneratzen du, alegia bere ikas-prozesuaren eta ezagutzaren kontzientzia hartzen du, uneoro daki nora begiratu”
-
- » **NEKANE OTSOA, ARRANKUDIAGA:**
 “Ikasleak izan duen ibilbidearen narrazioa bakarrik egiten badiezu gurasoei, oker interpreta dezakete, helburu orokorreko non dagoen islatzen ez badu”
-
- » **AINITZE BALEZIAGA, GEROA:**
 “Ikasleari esango diogunak pisua du; gaizki helaraziz gero, beldurak sor ditzakegu, norbere buruari jarriko dizkion mugak. Mezuak balio behar du aurrera egiteko; asmatuz gero, erronkari eutsiko dio ikasleak”
-



Nola dakizu ondo egiten ari zarela?... Eta erantzunetan trabatzen bada, korapiloa askatzen lagunduko diogu: Pauso hau eta hau eman al dituzu? Modu horretan, ikasleak metakognizioa barneratzen du, bere ikas-prozesuaren eta ezagutzaren kontzientzia hartzen du, momentuoro daki nora begiratu”. Protokoloaren azken galderak berak ere ikasteko gogoe-ta lagungarria izan nahi du: Berriz egin beharko bazenu, zer aldatuko zenuke?

San Bizenten bi dira zutabe nagusiak: autonomia eta iritzi kritikoa. Oro har, gaitasunak ebaluatzen dituzte, baina nola bermatu eduki kontzeptualak ere barneratu dituztela? “Landu ahala: adibidez, energia motez ariko bagara, ‘ir-teera txartela’ atera eta lehenengo galdetuko dugu zer den energia, azalduko dugu eta denek ulertu dutela ziurtatuko dugu, oinarria edo kontzeptua ongi finkatu gabe ezingo dugulako aurrera egin. Nolabait, ebaluazio iraunkorra da, momentuan bertan egindakoa; ez da aurrerago aparteko probarik egiten eduki horretaz galdetzeko”.

Notei balioa kendu diete eta ondorioz ikasleek ez dute arreta horretan jartzen, baina hiru aldagai dituzte:

- 1, ebidentziak ikusita, ez du helburua lortu eta berarekin finkatuko da norabidea.
- 2, lortu du.
- 3, oso ondo lortu du.

“Ez da azken emaitza, prozesua da: 1etik 2ra joan behar dugu, 2tik 3ra, eta 3koari ere erronka gehigarria jarriko diogu, zenbakia ez delako helburu, aurrera segitzeko tresna baizik”.

Arrankudiagan, norbere garapenaren kontzientzia

Arrankudiagako eskola txikian, 2-12 urte bitarteko 114 ikasle ari dira eta eskola hauetako filosofiari jarraiki, talde guztietan adin ezberdineko haurrak daude nahastuta. Hamar-hamabost urte dira proiektuak egiten dutela lan, testu-libururik gabe eta aniztasunari erantzutea oinarri hartuta. Metodologia horren isla da ebaluazioa ere: “Baliabidea da, ikaslearekin zein planifikazio egingo dugun eta zertan lagundu dezakegun erakusten diguna: informazio horrek esango digu umea jakintza zein momentutan dagoen, zein interes dituen, erabiltzen dituen estrategiak zeintzuk diren, gaiari buruz zer dakien, zelan kudeatzen dituen aurrean dituen egoerak...”, dio Nekane Otsoa zuzendariak. Arlo akademikoa eta konpetentziak behatzeaz gain, “jakin nahi dugu ikaslea gustura ari al den eta horretarako testuingurua ezagutu behar dugu. Ezinbestekoa da, esaterako, ebaluatzea ikasleak zein jarrera eta egoera animiko duen, horrek asko baldintzatuko duelako bere ikas-prozesua”.



Ikastetxeek utzitako argazkiotan, ezker-eskuin: Hernaniko Langile, Oiongo San Bizente, Arrankudiagako eskola txikia eta Trokonizko Geroa. Ebaluazio on batek etiketak apurtzeko ere balio duela esan digute, ikasleari berari erakusten bazaio egin duen ibilbidea eta izan duen garapena.

Ez dute azterketarik, produkzioak egin dituzte ikasleek eta ibilbidea erregistratzen doa irakaslea. Aldaketarik ikusi badu, idatzita geratuko da, baita zein testuingurutan eman den, zein arrazoi egon daitezkeen horretarako; “eta arrazoia izan daiteke adibidez goiz ona/txarra izan duela eskolara etorri aurretik”. Ikuspegia osatzeko, gelako hezitzaile taldeak bilera du astero. Horrekin guztiarekin, ikaslearen ibilbidea zehazten duen txostena egingo du irakasleak hiruhilerro. “Eta txostenaren bukaeran, nota ere jartzen dugu: lehen ez genuen egiten, baina konturatu ginen gaizkiulertuak suertatzen zirela etxe batzuetan. Ikasleak egindako ibilbidearen eta aurrerapenen narrazioa bakarrik egiten badiezu gurasoei, oker interpreta dezakete, ibilbide propioa erreferente hartuta ongi ari delako agian ikaslea, baina horrek ez du zertan islatu helburu orokorrekin dagoen”. Dena den, eurek indarra ikaslearen ibilbide propioari ematen diotela nabarmendu du Otsoak. “Sarri, hurrei ere erakusten diegu jasotzen goazen informazioa, txikiak direnetik jasotzen dugulako eta eboluzioaz jabetu daitezen, prozesuan hain sartuta gaudenean maiz ez garelako ibilbidea ikusteko kapaz, badijadi beti izan garela eta izango garela oso onak edo oso trakettsak, eta etiketak apurtzeko balio du: ‘Begira zer lortu duzun’, edo ‘zer hobetu dezakezula uste duzu?’ galdetuko diogu”.

Ikasleek elkar ebaluatzea ere onuragarria da: “Demagun, ikaskide batek baino gehiagok eta behin baino gehiagotan esan dizutela ezin dutela zure idatzia irakurri, ez dutelako letra ulertzen; irakasleak letra hobetu behar duzula esatea baino eraginkorragoa da, zure testuak ikaskideek leitzea nahi baduzu

idazkera lantzeko beharra sentituko duzulako, zentzua ikusiko diozu helburu horrekin Hobetzeko Tailerretan parte hartzeari. Tailer hauetan ikasleak berak ematen du izena nahi duen ekintzan, sumatzen dituen zailtasunen arabera”.

Geroan, errespetua oinarri

Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntza bukatu arte, 2-16 urte arteko 100 ikasletik gora ditu Trokonizko Geroa eskola libreak, Waldorf pedagogia abiapuntu. “Ebaluatzeko, lehenengo urratsa da haurra ongi ezagutzea, jakitea une eta etapa bakoitzean non dagoen eta zer behar duen, gogoia eta ikasteko grina mantendu ditzan, eskolan eta eskolaz kanpo”, kontatu digu Ainitze Balenziaga irakasleak. Haurra ezagutzeko, abantaila handia da irakasle berarekin aritzen direla 6 urteetatik 12 bete arte.

“Eskolara iristen direnean eskua ematen diegu eta hor jada bada zer irakurri, zein aldarterekin etorri den jakiteko: gogor estutu ote didan eskua, edo ihes egin dion diosalari, begiratu al nauen... Klasa hasi eta gorpuzkera behatuko dut, eta galdera botako dut, aurreko klasean landutakoaz; eskua altxatu dutenen arabera ikusten noa zeinek duen erantzuteko grina, zeinek ez duen hitz egiteko gogorik edo ez duen landutakoa gogoratzen... eta ondoriozta dezaket nork barneratu duen jorratutakoa, nortzuk karamilatu diren bidean, edota nik neuk nolako klasea eman nuen. Landutakoa denon parte-hartzearen bidez ekarriko dugu berriz klasera, eta barneratzea lortu dugunean, ikaslea bera da koaderno sortzen eta osatzen doana: hor ere bada zer behatu, ea ilusioz ari den, ekinean...”. Irakaslearen jarrera, jarduna eta klasea baloratzea ere behaketaren parte da.

Ebaluaketa indibiduala, jarraitua, egonkorra eta errespetuzkoa dute helburu. “Ez notarik, ez azterketarik, ez baita ebaluazio kuantitatiboa, kualitatiboa baizik. Urte bukaeran egiten dugun txostenean idatziko dugu hasieran nola zegoen, zein dohain garatu dituen eta zein oztopo eta erronka izan dituen, zer lantzeria animatzen dugun... Errealitatean oinarrituta, baina ikuspegi baikorrekin, haurrari beti eman behar diogulako ate bat aurrera jarraitzeko”. Eta zailtasunak? “Haurrak matematiketan arazoak baldin baditu ezin gara horretan geratu, beste arlo batzuetan dituen dohainak eta argiak ere goraiatu behar dira. Aldi berean, matematiketan zein ahalegin egin ditzakegun adierazi diezaiokegu, baina ardura eta errespetu handiz, harentzat erreferente inportantea garelako eta esaten diogunak pisua duelako; gaizki helaraziz gero, beldurrak sor ditzakegu, norbere buruari jarriko dizkion mugak, jasotako juzguen arabera. Mezuak balio behar du aurrera egiteko, eta asmatuz gero, inor etiketatu gabe, ongi hartuko du ikasleak, erronkari eutsi nahiko dio. Gainera, zailtasunak baditu, tresnak emanda iritsiko da, edo puntu jakin bateraino iritsiko da eta primeran, eman dezakeena hori baldin bada. Jakinda norberaren abiapuntua, prozesua eta noraino eman dezakeen, aurrera bakoitza norbere erronkekin!”.

Ebaluazioa erlatibizatzeaz ere aritu gara. Azken finean, gaitasun jakin batzuk ebaluatzen ari zaizkie ikasleei, ez pertsona bezala duten balioa, eta norbere esku ere egongo da indarrak zertan jarri. “Gure egitekoa da garapen prozesu horretan bidelagun izatea, zubi-lana egitea, eta gure begirada eta argibideak baliagarri bazaizkio, zoragarri”.



Ezker-eskuin:
Alexander Barandiaran,
Lore Erriondo
eta Ane Ablanedo.

M.G.

“Kalifikatzen dugun unetik, gutxienekoa da gero zein ebaluazio egingo dugun”

Hezkuntza eragileek ebaluazio eredu berri baterako irizpideen dekalogoia adostea gustatuko litzaioke LAB sindikatuari eta horretarako bidea jorratzen hasia da dagoeneko. *Egungo eredu irauliz, ebaluazio hezitzailea iruten* jardunaldiak antolatu zituen eta bertako mahai-inguruan eztabaidatutako guztitik lau gako hautatu ditugu. Ane Ablanedo (NUP, UPPA, UEU), Alexander Barandiaran (HUHEZI) eta Lore Erriondo (EHU) aritu ziren hizlari.

Kalifikazioak baldintzatuta

“Iruditzen zaigu ebaluaketa gauza natural bat dela eta gehienez pentsa deza-kegula nola eta zeren arabera ebaluatu –dio Ane Ablanedok–, eta haurrak barneratzen du kalifikatua izan behar duela. Horrek sozialki zein inplikazio dituen ez dago esan beharrik, kalifikatzea ikasleak sailkatzea dela aintzat harturik. Hutsune nagusia hori dela uste dut, ez dela

ebaluazioa egiten, kalifikazioa baizik, eta honek baldintzatzen duela ebaluazio osoa. Izan ere, kalifikatzen duzun momentutik, gutxienekoa da gero zein ebaluazio egingo duzun, zeren nota jarri eta ikasturtea pasako al duen esan behar duzu, eta hori zalantzan jarri gabe, alferrik da. Dena da ebaluagarria? Bai, baina ezin da dena kalifikatu. Batzuetan obsesionatzen gara ea ebaluazio objektiboa posible den, ohartu gabe objektibotasuna bilatzen dugula kalifikatu behar dugulako: kalifikatu behar badugu, izan dala ahalik eta objektiboen. Kalifikatzen ez dugunean, behaketa ez da objektiboa, nola izango da objektiboa! Nik behatuko dut egoera bat naizen horretatik, eta hortik ari naizela jakitun”.

Kanpo-ebaluazioak eta tranparen aldarrikapena

Argi du Lore Erriondok: “PISA eta horrelako azterketak sortu dira sortu direne-

rako, eta hor kokatu behar ditugu. Ezin ditugu kontuan hartu ikastetxean gure barne-ebaluaziorako tresna gisa”. Alexander Barandiaranek ere ez ditu aintzat hartzen, “baina kanpo-ebaluazioa kontrasterako denean, beharrezkoa iruditzen zait. Barruan zaudenean, hainbat kontu ez dituzu ikusten, eta interesgarria da sistematik kanpo dagoen norbaiten begirada, kontrasterako”. Ablanedok azpimarratu du PISAn emaitza onak ateratzen dituzten herrialdeen hezkuntza ereduak gehiago duela hemen alternatibotzat jotzen dugunetik: “Alegia, kalitatezko hezkuntza eskaintzen denean, arautua izan edo ez, haurrek ez dute bestee bano gutxiago ikasten”. Zirria sartzearen eta zirrikituak topatzearen alde ere egin du Ablanedok, estatuak eskaintzen digunari ahal den neurrian iskin egiteko: “Haurren eta ikaslearen mesedetan, aurre egin behar diogu sistemari”. Iritzi berekoa da Barandiaran,

» **ANE ABLANEDO:**

“Ebaluazioa ikaslearekin adostearen arriskua da ikaslea bera bihurtzea bere buruaren polizia; irakasleak kalifikatu behar badu, irakasleak egin dezala”

» **ALEXANDER BARANDIARAN:**

“Denei kalifikazio on bat jar diezaiekegu eta ondoren nahi duguna egin. Eta zer da nahi duguna? Zoriontsu izan. Gustura dagoen taldean garapena emango da”

» **LORE ERRIONDO:**

“Euskal Herriko ikastetxeetan erabiltzen diren ebaluaketa sistemei buruzko azterketa falta zaigu, egiten ari garen horren guztiaren kontzientzia hartzeko”

eta tranpak egitera animatu ditu hezitzaileak: “Sisteman kontraesanak sartu behar dira, eta sistemak behartzen bagaitu kalifikatzera, ba denei kalifikazio on bat jar diezaiekegu eta ondoren nahi duguna egin. Eta zer da nahi duguna? Mundu guztiak nahi duena: zoriontsu izan. Izan gaitezen zoriontsu eskoletan, gustura dagoen taldean garapena eman-go delako”.

Zein punturaino da ona haurren parte-hartzea?

Ikasleen parte-hartzea defendatu du Ablanedok, baina haurrak bere burua irakasleak jarritako parametroen arabera ebaluatzeko arriskua nabarmendu du: “Ados nago irakasle eta ikasleen arteko asanbladekin, ikastetxeko bizitzaz edo ikasitakoaz eztabaidatu dezaten, baina ebaluazioari lotuta, azkenaldian bada joera bat haurrari bere prozesuan parte hartuarazteko, eta teoriarik ongi dago, baldin eta ulertzen badu haurrak nondik egiten den ebaluazio hori, zeren berak badaki zer egiten duen ongi eta zer gaizki, baina ez du modu txar-

rean bizi, harik eta helduarentzat gaizki dagoen hori hobetu behar duela esaten zaion arte. Ebaluazioa ikaslearekin adostearen arriskua da ikaslea bera bihurtzea bere buruaren polizia; irakasleak kalifikatu behar badu, irakasleak egin dezala, irakasleak jarri diezaioa 5 bat, ez diezaioa ikasleak bere buruari jarri 5 hori”. Erriondoren ustez, sarri gainbabestu eta gutxietsi egiten ditugu haur eta gazteak, eta eurak badira kapaz euren ibilbidea ebaluatzeko. Barandiaranek gaineratu duenez, ikasleari hitza ematen diogunean ebaluatzeko, “ez dakit esaten al diogun ebaluatu dezala baita ere irakasleak berarekin izan duen jarrera, bere nahiak eta erritmoak errespetatuak izan al diren, zerbaite-tarako balio izan al dion ikasitakoak... Bestela betikora goaz, beste modu batean betikoa errepikatuz, fokua baka-rrik ikasleetan jarritz, eta ez inguruan”.

Amarauna osatzea helburu

Ikastetxeen arteko sareak osatzera animatu ditu Erriondok hezitzaileak: “Amarauna sortu beharko genuke, batzuen

eta besteen esperientziak eta tresnak partekatu, ondokoak egiten duena eza-gutu, adostu, definitu, bakoitzari balio diona erakutsi eta ikusi... Euskal Herriko ikastetxeetan erabiltzen diren ebaluaketa sistemei buruzko azterketa falta zaigu, eta oso inportantea iruditzen zait, elkar sustatzeko eta eragiteko, gure hezkuntza propioa antolatzen joateko, baita egiten ari garen horren guztiaren kontzientzia izateko ere”. ■





www.bilbaoeuskaraz.eus



www.ikusietaikasi.eus



www.harrapazank.eus

KOOP FABRIKA

EKINTZAILETZA

BESTE BEGI ETA

ESKU BATZUETATIK

Ekintzailletza. Gazteek (eta ez hain gazteek) urratu beharreko bide berria hori dela diote etengabe politikari eta enpresari elkarteen ordezkariak. Haien asmo eta nahietatik oso urrun ordea, beste eredu bat ari da garatzen: kolektiboa, tokiko sareetan antolatua eta eraldatzailea izan nahi duena. Hori sustatu, lagundu eta indartzeko lantegia da Koop Fabrika.



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

Hutsetik inperio bat eraiki zuten gizon zuri aberatsak, Silicon Valley, start-up-ak, nazioarteko konferentziak. Oraindik ere horrelakoak etortzen zaizkigu burura ekintzailletza eta enpresen sorrera ahotan hartzean. Baina lana aurkitzeko zailtasunak hain ohikoak diren honetan, ez dira gutxi bizitzia eta lana uztartuz proiektu propioa martxan jartzea buruan dutenak. Hori guztia ikuspegi neo-liberaletik kanpo garatzeko baliabideak eta erreferenteak falta izan dira ordea. Bai, behintzat, orain gutxi arte.

2015ean abiatu ziren Beterri-Buruntzaldeko Kooperatzen eta Bergarako Berrekin Berregin ekimenak; eskualde desberdinetan baina kezka bera oinarri. Aurtun, biak batu, Oarsoaldea ere zabaldu eta Koop Fabrika sortu dute: "Ekonomia sozial berria eta ekintzailetasun soziala sustatzeko programa". Edo modu lurtarragoan esanda: gizartea eta euren bizitzak eraldatzeko proiektuak martxan jarri nahi dituztenak laguntzeko eta sarean aritzeko tresna.

Izaera ezberdin askotako eragileak elkar ulertu eta helburuak konpartitzearen ondorioa da Koop Fabrika. Pentsa,

Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesean, Mondragon Unibertsitateko Lanki ikerategia, OlatuKoop sarea, Bagara, Debagoiako garapen agentzia, Beterri-Buruntzaldeko udalak eta Oarsoaldea garapen agentzia ari dira elkarlanean.

Lanki Ikertegiko kidea da Arianne Kareaga, eta dioenez, programa hiru faseetan banatu dute. Lehengoa, formaziora bideratu da, otsailetik apirilera bitarte martxan dena. Bertan, parte-hartzaileek saio teorikoak eta proiektuaren asmoetan sakontzeko saio praktikoak uztartzen dituzte. Atal hori hiru eskualdetan banatuta egiten da, baina hainbat bisita eta saio egiteko denak elkartzen dira maiz. Bigarren fasean, apiriletik aurrera, proiektuei jarraipena eta tutoretza espesifikoko egingo zaizkie, ideiatik ekin-

» **ARAN ERASUN:**
"Zerbait berria abiatzeko
testuinguru emozionala
eman dit lantegiak"



tzara igarotzen laguntzeko. Azkenik, hirugarren fasean, eskualde bakoitzeko eragile ekonomiko eraldatzaileen artean sareak nola sortu landuko dute. Horrekin elkar ezagutu eta lankidetzan aritzeko espazioak eskaini nahi dituzte, baita ekonomia alternatibo antolatuagoa osatzeko urratsak ematen lagundu ere.

Badago aldea

Badago aldea. Hala dio Koop Fabrikaren lehenengo edizio honetako leloak. Gaur egun nagusi den ekintzailletza eredutik aldendu nahi dutelako aukeratu dute, Beñat Irasuegi Olatukoopetako kidearen arabera. "Esparru gehienetan bultzatzen den eredu arrakasta indibidualarena da: ideia genial bat sortu, eta denbora azkarrean aberasteko aukera ematen duena. Baina gezur hutsa da hori. Guk uste dugu territorioetako beharretatik abiatuta, posible dela langileek beraien lanaren jabe egiteko eta euren bizitzak modu duinean eraikitzeko proiektuak martxan jartzea". Horretarako, proiektuen dimentsio soziala lantzea, modu kolektiboan egitea eta beste proiektuekin elkarlana ezinbestekoa dela dio.


Parte hartzeaz eta elkarlanaz egindako saioretako bat Eskoriatzan.

KOOP FABRIKA

Proiektu sozial eta kolektiboen denborak ez dira beti laburrak. Horregatik, formazioan proiektuen bideragarritasuna lantzeaz gain, beste elementu bat ere aztertzen dute: bizigarritasuna. “Gure ikasleek sortuko dituzten proiektu asko beraien bizi proiektuak izango dira, eta beharrezkoa da kideen arteko zaintza eta elkartasuna lantzea”.

Aldea badagoela erakusten duen beste ezaugarri bat prozesu osoan sarean egiteari ematen dioten garrantzia dela uste du Irasuegik. “Ekintzailatza tradizionalan merkatua da proiektua sustengatu edo desagerrarazten duena. Guk ordea uste dugu proiektuak behar bati erantzuten badio, tokiko sarean eta merkatu sozialean aurkituko duela bideragarritasuna eta bizigarritasuna lantzeko eremua”.

Testuinguru emozionalaren garrantzia

“Ez nuen espero akonpainamendua hain gertukoa izatea. Gainera, ekonomia sozialek abiatzea oso ondo etortzen zaigu, gure ideia ikuspegi horretatik bakarrik ulertzen delako”. Paloma Alicia Martinezen hitzak dira. Mexikon jaio

eta Aretxabaletan bizi da, eta inklusioaren alde lan egiten duen Gu Haziak Gara elkarteko kide da. Insertzioa landuko duen enpresa bat sortzekotan daudelako eman zuen izena Koop Fabrikari. Jasotako formakuntzaz gain, proiektua lantzeko espazio bat eta denbora eman diolako dago pozik hartutako erabakia-rekin.

Aran Erasun hernaniarra ere ari da Koop Fabrikaren lehenengo edizio honetan parte hartzen. *Coachinga* eta honen loturiko formazioa baliatuz emakumeak ahalduztzeko programa da esku artean duen egitasmoa. Proiektua zehazteko eta aberasteko bitartekoak (metodologikoak, teorikoak...) eskaini dizkiola dio, baina ez hori bakarrik. “Horrelako aldaketa fase batean murgiltzeko eta zerbait berria abiatzeko beharrezko testuinguru emozionala ere eman dit. Parte hartzen ari garen guztiok elkar entzun eta bidea konpartitzea oso baliagarria da”.

Tutoreen formazioa

Aurtengoa lehenengo edizioa da, baina itxura guztien arabera, ez da azkenea izango. Eskualde gehiagotara za-

balduko bada, proiektuak laguntzeko gaitasuna duten pertsonak ezinbesteko izango dira. Hori dela eta, “tutoreen formazioa” izeneko ikastaro laburra ere jarri dute martxan. Denera, 30 lagun ari dira horretan. Tartean badira udal teknikariak eta garapen agentziatako langileak, baina baita elkarte eta kooperatiba txikitako kideak ere. Oso ekimen garrantzitsua dela dio Kareagak. “Euren esperientzia propioak dituzte eta horietatik irakaspen asko atera ditzakegu. Era berean, arlo batzuetan formazioa jasotzea eta debatea zabaltzea beti da aberatsa. Irudipena dugu etorkizunean sareak josteko eta lankidetzat artikulatuko baterantzko urratsak emateko ereiten gabiltzala”.

Hiru eskualdetan hasitakoa laster zabalduko dela dirudi, interesa duten eragileen eta eskualdeen eskaerak iritsi baitzaizkie dagoeneko. Dena den, eskualde bakoitzean modu ezberdinean garatu daitekeela uste du Irasuegik, eta ziurrenik, hori dela onena. “Tokian tokian sortuko diren harreman ekonomiko eta sozialen sare moduan irudikatzen dut etorkizuneko Koop Fabrika”. ■

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828

www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

EZBAIAK, MAMUAK ETA ETSIPENA KANPAINAURREAN

Frantziako presidente berria hautatzeko bozak apirilaren 23an eta maiatzaren 7an izanen dira; igandez eta bi itzulitan. V. Errepublikako hamaikagarren hauteskundeak dira, egundainoko berezienak. Aro honetako lehen presidentea, Charles de Gaulle, 1958an izan zen hautatua, erreferendum bidez; gainerako guztiak berriz, sufragio unibertsalez. Lehen aldikoz, presidentea dena ez da hautagai izanen. Hots, François Hollandek ez du bere burua aurkeztu. Hexagonoa krisi politiko handian murgilduta dago. Analista politiko askok Frantziako Estatuaren eraldaketa iragarri dute hurrengo agintaldian, VI. Errepublikaren atarian bide gara.



Mikel Asurmendi
@masurmendi

2017ko Frantziako hauteskunde presidentzialak azken 60 urteetako berezienak dira. Kanpaina ofizialki hasi gabe, “arrakastarik gabekotzat” jo dituzte adituek. Hona jarraian –hautagaien programak hurrengo baterako lagaz–, hauteskunde hauek berezi egiten dituzten zortzi ezaugarri:

1. V. Errepublikaren garaian, legealdia amaitu berri duten presidentek agintzen segitzeko aukera gehien izan dute, oraingoan, presidente lehian sendo den bakarra *Front National*-eko Marine Le Pen da. Zaila da oso, bigarren itzulian berarekin lehiatuko dena antzematea. François Fillon (*Les Républicains*) eta Emmanuel Macron (*En Marche*) dira aukera gehien dutenak. Ezkerreko Benoît Hamon (*Parti Socialiste*) eta Jean-Luc Mélenchon (*La France insoumise*) arteko akordio batek ezkerrearen aukera suspertu lezake. Egiari zor, bien jarrerak ikusita, aukera gauza ezina da.

2. Primarioak: Frantzian primarioek ez dute inoiz, aldion izan duten garrantzia. Primarioak eskuin eta ezkerreko alderdietan (LR eta PS) jokatu dira, eta berauek izugarritzko higatzea eragin die te bie. Nicolas Sarkozy irabazi ezean –presidente izana–, Alain Juppé iragarri zen –eskuineko zentrista– LRko primarioetako garailea. Usteak ustel, Fillon na-

gusitu zen inkestak hankaz gora ezarriz. PSn berriz, Hollande presidenteak aurkezteari uko egin izanak bere agintaldi hutsala agerrarazi zuen. Manuel Valls lehen ministro ohiak Hollanden tokia hartu nahi izan zuen, alabaina PSko ildo sozialdemokratak –alderdiaren apartuak– bere boto-emaileen sostengua galdu duela “onartu” behar izan du. Hamon jaldi da garaile. Alderdiko askoren ustez, presidente izateko mailarik ematen ez duen hautagaia, areago, zirkulu politiko zenbaitetan Hamonek “barregura” sorraz du. Hauteskunde primarioek V. Errepublikaren garaian agindu duten alderdi nagusien gabeziak azaleratu dituzte.

3. Penelopegate afera Fillon auzi gaitza bihurtu da frantziarrentzat, politikoki nahiz moralki. *Le Canard Enchaîné* aldizkari satirikoak LRko hautagai Fillon bere senitartekoak lanpostu faltsuen bidez enplegatu izanaz salatu ondoren, etsipen giroa barreiatsu zen Hexagonoan. Lehen ministro ohiaren aurkako ustelkeriaren akusazioek erabat baldintzatu dute kanpainaurrea, baita erabat aztoratu ere eskuin gaullista. Fillonek tinko aurre egin die bere alderdian kontra egin diotenei. Haatik, LRen aukerak puntu asko galdu du Macron hautagaia- ren aldean. Juppék Fillon ordezkatzuko ote zuen zabaldu zen une batez, Fillonek temati eutsi dio egoera latzari. Azkenal-

dion, hasierako bere oldarra apaldu du eta Justiziaren aurrean lasaiago agertu da. Primarioak irabazi ostean, Marine Le Peni aurre egin diezaiokeen bakarra bera zen, baina haren aurkako auziak ikaragarritzko higadura ekarri dio berari eta eskuinari. Fillonek Justiziaren segimendua izanen du kanpaina zehar, baita “mamua” ere.

4. “Konspirazioa” omen da kanpainaurrea “zikindu” duena. Frantzian egundo ez dira hautagaien arteko taimainako akusazioak entzun. Fillonek frantziar justiziaren inpartzialtasuna zalantzan jarri du. Bere ustez, Estatuko aparatua kontrolatzen dutenek (Eliseotik eta Matignonetik) Hollande presidenteak eta Bernard Cazeneuve lehen ministroak zuzendutako kanpaina izan dela aditzera eman du, zeharka bada ere. Bere abokatuen ustez, hedabideek justizia “orkestratu” dute Fillonen aurka egiteko. Herritarrek baino ezin dute bera jujatu, eta hori bozen bidez eginen dutela, erran du LRko hautagaiak. Fillonek berak bere “hilketa politikoa” eratu izanaz akusatu ditu arerio politikoak. Presidentegai batek ez zituen V. Errepublikaren egiturak eta baloreak sekula ezbaian jarri. Alabaina, frantziarren gehiengoaren ustez, Fillonek marra gorria gainditu ez ezik, bere hilobia ere berak zulatu du.



Emmanuel Macron, Marine Le Pen, François Fillon, Benoît Hamon eta Jean-Luc Mélenchon.

5. Macron fenomeno: *En Marche* da Macron Eliseora eraman behar duen sasi-alderdi politikoa. “Macron zer da, eskuindarra edo ezkertiarra?”, galdeztzen dute frantziarrek. Macronek ez du konplexurik, “*rassemblement*” hitza du gogoko, hau da, Frantziak bizi duen krisitik ateratzeko ezker nahiz eskuineko sektoreen “kontzentrazioa” eskaintzen du. Mundializazioa eta kapitalismo liberala ordezkatzeko leporatzen dizkiote ezkertiarrek. Eskuindarrek berriz, Macron irrealistatzat jotzen dute; baita populistatzat jo ere bi aldeek. Ordea, bera jakitun da, egungo ekonomia kudeatzen duen *établissement*-arentzat bere profil politikoa Fillonena –Hamonena, zer esanik ez– baino aise hobeagoa dela. Hollanden agintaldian ekonomia-ministroa zela, Macronek garaiz utzi zuen gobernua, baita Eliseorako lasterketa arin abiatu ere. Le Penekin batera bera da bigarren itzulirako faboritua. Biek ala biek kontraesan eta eragozpen franko gainditu behar dituzten arren –Le Peni lehenik eta Macroni azkenik, biei diruaren erabilpen okerra egin izana egotzi diete– beste hautagaiak baino hobeto iritsi dira kanpainaren atarira.

6. Inkestak: aipatutako bost hautagaiak ez dira bakarrak, badira gutxienez beste bost ere, eta gehiago aurkez liteke azken unean. Inkesten arabera, bozen

%1-3 artean jasotzearen aukera baino ez dute horiek. Euren ustez, ordea, inkestek herritarrek manipulatu dituzte erabat. Herritar gehienek ere, gero eta uste sendoagoa dute inkestek eta hedabideek hautesleen nahia “manipulatu” dutela. Egiari zor, inkestek iragarriak eta bozen emaitzek ez dute bat egin azkenaldion. Donald Trumpen kasua lekuko. AEBetako primarioetan inkestek egungo presidenteari ez zioten agindu herritarrek gero emandako sostengua. Frantzian antzeko “mamua” dabil airean.

7. Hamon fenomeno paradigmatikoa da. Sozialismo errealearen porrota gainditzera deitua da nonbait. Alta, ez da PSren hautagaia, edo ez du behintzat alderdiko nagusien onspena jaso orain arte. Hamonek Vallsen lekua hartu du eta Hollanden bosturteko politika kas-karrari onspena ematea exijitzen dio alderdiak. Hamonek hori eginez gero, Mélenchonek bere aldeko ezkertiarren boz asko jaso lezake. Mélenchon, alta, ezker despota eta jakobinistaren ordezkaria da askorentzat. Komunista ohi askok bera eta Hamonen ordezkariak, Macron hobetsi dute. Munduan nagusitu den liberalismoak berak jota dago Frantziako ezkerrean ere.

8. Frantziak krisi ekonomiko sozial eta politiko gaitza bizi du. Mundializazioak eta Ekialde Hurbileko egoera gatazkatsuak –islamismo fundamentalista, jihadismoa tarteko– bere izaera sendoa durduzarazi dute. Adibidez, Turkiako presidentea Erdogane eta atzerri-ministro Cevizoglu Europar Batasunaren aurka gogor mintzatu dira Metz hirian emandako mitinean. Europar nazismoa bizirik dagoela erran dute. Besteak beste, Angela Merkelen Alemania izan da euren hitzen jomuga, baita Herbehereak ere. Alabaina, Turkiako mandatarien agerraldia Europako hainbat estatutan debekatua izan den bitartean, frantziarrek turkiarren irainak entzun behar izan dituzte beren lurraldean. Turkiar komunitateak Europar –eta Frantzian– daukan pisuak Frantziako Gobernuaren “onespena” erraztu du hauteskundeetan atarian. Europako krisia eta noraeza eragin berezia izaten ari dira hauteskundeetan atarian –Europak arnasa hartu du, liberalismoa eskuineko populismoari gailendu zaiolako Herbehereetako hauteskundeetan, *Brexit* “mamua” uxatuz behin-behinean–. Hala ere, Trump fenomeno “mamua” baten gisara dabil Frantzian eta Europar orobat. Europar Batasunaren etsai Marine Le Pen ongi baino hobeto baliatzen ari da efektu hori. ■

Beiruteko egoitza

PALESTINAKO DIASPORAREN ENTITATE POLITIKO BERRIA

Herritik at bizitzera behartuta dauden palestinarren biltzarrak erakunde politiko berria eraiki du. Luze iraun duen Palestinarren Askapenerako Erakundearen (PAE) utzikeria konpontzeko ardatza osatu nahi dute, baita Israelen okupazio politikaren aurkako estrategia suspertu ere.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Aitor Bikandi

Istanbulen bi egun bilduta egon ostean, Atzerriko Palestinarren Biltzarrean bildutakoek diaspora palestinarren eskubideak sakontzearen alde egingo duen entitate politikoa eratu dute. Ez Palestinarren Askapenerako Erakundea (PAE) ordezkatu eta baztertzeko ideiarekin, berau osatu eta Israelen okupazio politikaren kontrako estrategia bultzatzeko baizik.

1964an sortu zuten PAE, garai zeharo desberdinak ziren. Orduan Gamal Abdel Nasser Egiptoko lehendakariaren irudia nagusi zela, Liga Arabiarren eta Palestinako sindikatu, gazte erakunde, errefuxiatu eta erakunde feministen parte hartzearekin batera izan zen osatua. Oraindik ere, Palestinan bertan zein errefuxiatu gunetan ere hain presente dagoen Yasser Arafatek eta Fatah-k eskuratu zuten erakundearen lehendakaritza; 1969. urtean. Hirugarrena izanagatik, gogoangarriena izan zen Arafat,

berea izan baitzen 1993an Osloko Akordioak sinatu zituen eskua, baita Bill Clintonen aurrean Shimon Peresi bostekoa emateko luzatzen lehenengoa ere, oraindik historia horren guztiaren galtzaileek begi txarrekin ikusten duten keinua.

Intifadak gainditzeko hitzarmena

Nazioartean hitzarmena goraipatu eta Intifadak atzean utziko zituen adoste gisa irudikatua izan zen. Bakearen aldeko arrakasta handiko akordioa erdietsi zenaren ideia hedatu nahi izan bazen ere, denborak bestelako joerak berrezarri zirela berretsi eta ondorio latzak ekarri zituen palestinarrentzat. Besteak beste, palestinar lurralde historikoaren %78ri uko egin eta gainontzeko %22an bizitzea onartzearekin batera, Israelen 1948an erasoaldiarekin hasitakoaren ostean jarraiki okupazio eta kolonizazio proiektuarekin aurrera egin zuten, garbiketa demografikoaren bidea-



ri ekinez, gaur oso esanguratsua den 700 kilometroko harresiaren irudiak estrategia hori ezin hobeto irudikatzen duela.

Eraginak mediatikoki ikusgarriak izan direnean, 2011 eta 2014ko erasoaldiak kasu, luze eta zabal izan dugu gertakarien berri, baina okupazioaren eraginak hainbat mailatan jazotzen dira eta esparru guztietan dute presentzia, Palestina barruko zein kanpokoentzat saihesteziak diren errealitateek okerrera egiten dutela eta egunerokotasunak amaierarik gabeko zigorra dirudiela.

Besteak beste, hain zuzen Fatah-ren buruzagitzapeko PAEri egiten dio Atzerriko Palestinarren Biltzar honek kritika, Israelgo armadari bakarrik men egiten dion buruzagitza sortu izanagatik. Biltzarren azkenengo adierazpenean, Anis Al-Qasem legedian adituak PAEko lidergoari leporatu dio Palestinaren eskubide historikoak xahutzea, okupazioa



eta palestinarren sufrimendua luzatu eta sakondu dituzten Israelekiko hitzar-menetan.

Hala ere, PAEren euskarri gisa aurkeztu du bere burua oraindik izenik ez duen entitate politiko berri honek, Ribhi Halloum, PAEko enbaxadore ohiaren esanetan, "PAEren euskarri izan nahi duen estruktura eratzen saiatzen ari gara", ideia ez da beraz alderdi berria sortzea, baizik eta palestinar guztien parte hartzera irekita egongo den erakunde independentea eraikitzea. Fatah-k PAEren kontrako erasotzat jo du Biltzarra, palestinarrak banandu nahi dituen ekimena dela egotzita.

Egoitza Beiruten

Egoitza Beiruten finkatzea erabakitzeaz aparte, biltzarrean ezarri diren helburu nagusiek hurrengo ideiak hartzen dituzte barne: aipatutako Israel eta Palestinaren arteko Osloko Akordioak in-

dargabetzea; palestinar guztiak hobeto ordezkatuko dituen PAEren berregituraketa; eta demokratikoki hautatutako Palestinako Nazio Kontseilua, alegia, PAEren erbesteratutako erakunde lege-gilearen eraketa.

Duela hiru aste, Teheranen egindako Palestinako Intifadaren Aldeko Nazioarteko VI. Konferentzian, Hezbollah-k Irango Errepublika Islamiarrak "Palestina ez duela ahaztu" esan du; Libanoko errefuxiatu palestinar eta siriarren egoera okerrera doa; Siriako gudaren ziurgabetasunak dira; BDZ, Israelen apartheidaren kontrako Boikot, Desinbertsio eta Zigorren kanpaina pil-pilean dago; Trumpen Ameriketako Estatu Batuek Ekialde Hurbileko politika aldatzeak ere eraginik izango du... Tes-tuinguru horretan, nork bere buruari Ekialde Hurbilean aldaketa sakonen garaian ote gauden galdera egitea hala-beharrezkoa dela dirudi. ■

» Fatah-k PAEren kontrako erasotzat jo du Biltzarra, palestinarrak banandu nahi dituen ekimena dela egotzita

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Lenkera Hondurasen eta El Salvadorren

DESAGERRARAZITAKO

HIZKUNTZA PIZTEN HASI DIRA

El Salvador eta Hondurasko lenkera hizkuntzaren gainean mintzatu zen Alan King (Lancashire, Ingalaterra, 1954) hizkuntzalaria Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean martxoaren 15ean, *Hitz Adina Mintzo* zikloaren barnean. Aski berezia zaigu lenkeraren egoera, Kingek esandakoaren arabera XX. mendean desagertu baitziren azken hiztunak. Inondik ere, espainiarrek Honduras eta El Salvador zapaldu aurreko talde etnikorik handiena dira lenkak. Gizarte aurreratua zen, Los Naranjos eta Yarumela hirietako azpiegiturek erakusten dutenez.



Miel A. Elustondo

Lenkera hizkuntzari dagokionez, El Salvadorren, nagusiki bi hizkuntza hitz egiten zituzten bertan sortuek: batetik, nawata, mendebaldean; bestetik, lenkera, ekialdean. Hondurasen ere hitz egiten zuten lenkeraz. Bi hizkuntza dira, oso ezberdinak, nahiz eta familia berekoak izan El Salvadorko lenkera eta Honduraskoa. Eta, ezaugarri bat, euskararekin partekatzen dutena: “El Salvadorko eta Hondurasko lenkera hizkuntzek osatzen duten familia euskara bezain barkartua dago munduan”.

Hondurasen hizkuntza zabalduena zen lenkera, ez du ordea, oraingo egunera arte bizirik iraun. “Inork ez daki lenkeraz mintzatzen. Duela 30-50 urte desagertu ziren azken hiztunak. Denbora franko galarazi dit horrek. Batera joan, bestera joan, eta han edo hemen lenkeraz hitz egiten zuen baten bat bazela esaten zidaten. Joan, eta inork ez zuela lenkeraz hitz egiten!”, esan digu Alan Kingek.

Lenkera-aztarna apurren bila

Lenkera hiztunek ez zuten lenkeraz idatzi izan, baina, hala ere, zenbait do-

kumentu zaharretan hitz zerrenda bakanak aurkitu dituzte hizkuntzalariek. Hizkuntza galdurik ere, bertan da bizirik herria. Alan Kingek esana duenez, zentzu etniko eta kulturalari dagokionez, nortasun kontzientziak ere bizirik irauten du haien baitan. Hizkuntza eskas, ordea, eta berreskuratzeko lanari lotu zaizkio. Konparazio batera, Hondurasko etniek hitz egiten dituzten hizkuntza guztien artean, lenkera da desagertu den bakarra. Bertakoek tragediatzat jo dute galera, eta zenbait elkartek eta erakundek hizkuntzaren aztarnak biltzeari ekin zioten. Neketan bildu zuten aztarnarik, hala XIX. mende amaieran nola XX.aren hasieran lenkerari arreta eman zioten ikertzaileek landutako dokumentazioa ez baitzen apurra baino gehiago. “Nawata aztertzen ari nintzela etorri zitzaizkidan lenkera hizkuntza berreskuratzen lagunduko ote nien galdezka, eta lehenengo, ezetz esan nien, hizkuntza desagertua baitzegoen! Hala ere, zer edo zer egiteko eskatu zidaten, eta nik txosten bat egingo nuela esan nuen. Baina uste baino gehiago luzatu nintzen, uste baino material gehiago bildu, eta beharbada zertxobait egin zitekeela esan nuen, hau da, hizkuntza berreraiki, hizkuntza nolakoa zen adierazi”. Gramatika egina du harrezkero.

Duela bi urte Herri Indigenen eta Afrohondurarren Hezkuntzarako Zu-

zendaritza Nagusiorde SDGEPIAHak jardunaldiak antolatu zituen, hizkuntza indigenen berreskurapena helburu, tokian tokiko hizkuntza eskolara sartzeko asmotan, Kulturarteko Hezkuntza Elebidun ElBaren programaren barruan. Hizkuntza horietan zen lenkera. Ordurako, Alan King hizkuntzalaria eta Jan Morrow El Salvadorren ari ziren, lenkera berreskuratzeko lanean. “Jende borrokalaria da, bizi diren inguruko baliabide naturalen defentsa gogorra egiten dute –defentsa horretan nabarmendutako ekintzailea, Berta Caceres, iaz tiroz hil zuten–, sentsibiltatea dute eta ‘guk ere hizkuntza berreskuratu nahi dugu!’, esan zuten. Horrela, Hondurasera deitu gintuzten Jan Morrow eta biok, El Salvadorren egiten ari ginen moduko lana Hondurasko lenkerarekin egin ote genezakeen galdezka”, esan digu Kingek.

Gramatikaren lehen atala

Hiztunik ez zuten, ordea, ezta hizkuntzarik ere. Eta nola sartu hizkuntza eskolara, haren deskribapenik ez bada? El Salvadorko lenkera aztertzen ari zela heldu zitzaion Kingi Hondurasko lenkera aztertzea. Oraingo egunean, Alan Kingek egina du lenkera ikasteko gramatikaren lehen alea: *Primer Libro de Aprendizaje de la Lengua Lenca*. Hizkuntza berreraikitze lanean, munduan



HONDUPRENSA

bateko eta besteko biblioteca eta museoetan bildutako dokumentu historikoak baliatu zituen. “Ez zen material askorik, baina zerbait. Puzzle itzel bat egitea da desagertuta dagoen hizkuntza baten gramatika eraikitzea. Batzuek esaten dute hori ez dela posible, zalan-tzan jartzen dute –Euskaltzaindiaren gramatika batzordeko zenbait kidek, adibidez–, baina nik zer edo zer egin dut bide horretan, lehen atala, etorriko dira gehiago”, Kingek esana.

Gramatikaren lehen atala eginik –hizkuntza berreraikitzearen lehenbiziko saioa, alegia–, hurrengo urratsa da egin-kizun: lenkera berreskuratzea, hau da, hitz egiten den hizkuntza. “Oso galdera zaila da. Guk, hasteko, estrategia bat proposatu dugu, nahiz eta hizkuntza berreskuratzearen garantiarik ez dagoen. Delako estrategia horren arabera, ereileak behar ditugu. Baratzarekin konparatzen ahal dut. Urte batetik bestera, hazirik edota landararik onenak ereiten edo aldatzen ditu nekazariak. Baina, baratzean ezer ereiten hasteko hazia behar dugu, lehen hazia, eta lenkera hizkuntzak ere horixe behar du, lehen hiztun taldea. Orain ez dugu hiztunik ez irakaslerik, gramatika bat besterik ez, oker eta guzti. Nork edo nork, gramatika hartu eta lenkeraz hitz egiten ikasi behar du lehenengo, eta ondoren, beste batzuei iraka-

“Jende borrokalaria da Honduraskoa, bizi diren inguruko baliabide naturalen defentsa gogorra egiten dute –defentsa horretan nabarmendutako ekintzailea, Berta Cáceres, iaz tiroz hil zuten–, sentsibiltatea dute eta ‘guk ere hizkuntza berreskuratu nahi dugul!’ esan zuten”.

tsi. Hizkuntza irakasle ere izan naiz, eta badakit hori ez dela guztiek egin dezaketena gauza, pertsona jakin batzuek bai-zik”, Kingek esan digunez. “Ikasi eta gero, nola irakatsiko duten pentsatu beharko dute, transmisio katea osatuz”.

Ereintza bide horretan, arestian aipatu SDGEPIAH erakundeak talde txiki bat osatu du Hondurasen, zenbait lagunek lenkera ikas dezaten eta mintzatzen treba daitezen. Hurrengo helburua izango da lenkera hitz egin den alderdian ari diren EIBko irakasleei hizkuntza irakastea, ondoren irakasleok material didaktikoa presta dezaten bertako ikasleei irakasteko. Talde hori abian da Hondurasen, eta zenbait hizkuntz baliabide ere jarri dituzte sarean tushik.org helbidean. Horrez gainera, facebook orrialdea ere ireki dute (iralapil-recuperemos el lenca), non lenkeraz ikasteko informazioa eta materialak ezarri baitituzte; besteak beste, bertan da Alan Kingek lenkera hizkuntza ikasteko lehen ikasliburua. Ereintza garaia dute *iralapil* hitzak esan nahi duenez: *irak lapil*-en kontrakzioa, “ereiten ari gara” du esanahi.

Ereintza lan guztiak gorabehera, ordea, lantegi zaila da lenkera berpiztea.

Alan Kingek hebreera, kornubiera eta manxera jarri ditu berreskuratze adibidetzat. “Lenkera berreskuratzea ez da zeharo ezinezkoa. Lenka komunitateak saiatzeko besterik ez digu eskatu. Gogoaren arabera izango da emaitza. Hau da, zenbat balio du herri jakin bantentzat bere sustraietako gakoa berreskuratzea? Gizartean ba ote dago halako ahalegin itzelari ekiteko gogorik?”. Galdera gaitzari baikor erantzun nahi dio. “Lanean hasi dira, baina horixe, hasi besterik ez. Interesa adierazi dute, eta hobeko dute gogoia izan, bestela jai dago. Errealitatea beti da uste baino konplexuagoa... Duela ehun urte galdera hori hemen egin izan bazenu, alegia, euskaldunek beren hizkuntza berreskuratu nahi ote zuten, batzuek baietz, beste batzuek ezetz, eta beste batzuei bost axola, izango zatekeen erantzuna. Lenkeraren kasuan, interesa dutela uste dugu. Bestela, alferrik ariko ginatke”. Alabaina, gauzak ez dira zuri ala beltz Alan Kingen eskarmentuaren arabera: “Zenbat eta interes handiagoa sortu komunitatean, orduan eta jende gehiago interesatuko da lenkera hizkuntza berreskuratzen. Interesa ere erein egin behar da”... ■

ILARGIAREN ERAGINA

BIRAKA DABILEN FENOMENOA

“Bizitza modernoak itsu bilakatzen gaitu ilargiaren eraginen aurrean. Mitoa zena, zientziak frogatu du gerora. Izan ere, egunero ikus ditzakegu errealak diren efektuak gure bizitzetan”, dio Michel Gros idazle eta nekazariak. Egunero ikusten dugu ilargia, baina ezagutzen al dugu?



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Ilargiak Lurrari eragiten diola erakusten duten frogak ardatz, *Ilargiaren Egutegia* osatu dute Alkartasuna Kooperatibak, ENEEK Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak eta ARGIAk. “Lurra da guztiaren oinarri. Lurrak berak lantzen ditu ortuak eta abereak. Naturarekin bat lan eginez gero, kalitatezko produktuak lortuko dira”, diote. Lurrak eta baratzeak nola eta noiz landu aholkatzen du egutegiak, ilargiaren eta eguzkiaren eragina oinarri hartuta.

Askotan bilatzen da ilargi betea, baina eraginkorragoak dira prozesuak: ilgora eta ilbehera. Ilgoran, ilargia betetzen ari denean, eguzki eta ilargiaren indarrak gorantz egiten dute. Baratzean lur azpikoak hartuko luke indarra eta ereiteko, belarra ebakitzeko, ontzeko, fruitua biltzeko eta txertatzeko, besteak beste, egokiak dira. Ilbeheran, ilargia husten ari denean, behearantz egingo du indarrak, eta sustraiak sendotuko dira. Landatu, kimatu, moztu, simaur lanak egin eta lurra lantzeko garaia da, besteak beste.



IZARO MARIEZKURRENA

Eta gure gorputzengan, ba al du eragirik ilargiak?

Michel Gros idazle frantziarrak urtero argitaratzen du *Lunario* liburua. Ilargiak esparru desberdinetan nola eragiten duen azaltzen du: mareak, landareak, animaliak... eta tartean giza-gorputzean: “Ilargiak mareak baldintzatzen ditu, baina baita gure desira, instintu eta umorea ere”.

Grosek hainbat adibide ematen ditu. Ilbetearen aurreko egunetan gorputzeko melatonina hormona murriztu egiten dela kontatzen du, eta horrek logura kentzen duela. Izan ere, loarekin lotura duen garuneko jarduna %30 murrizten da. Ilargiaren zikloak norberaren sentimenduetan arabera nabaritutako ditugula gehitzen du.

Ilargiaren Egutegian landareak kimatzeko garaiak azpimarratzen diren bezala, Grosek ilea mozteko egun egokiak zeintzuk diren nabarmendu du. Ilbeheran moztuz gero, gehiago kostako zaio berriro irtetea: “Egun aiposean depilatuz gero, bi astez luza daiteke ilea hazteko prozesua”. Ilearen logika bera jarraitu du azazkalekin ere.

Ebakuntza kirurgikoen kasuan, ilargiaren eragina sendatze prozesuan is-

latuko dela dio Grosek. Gorputzeko atal bakoitza ikur zodiako batekin lotzen du. Ilargiak atal bat estimulatu du sasoi bakoitzean, eta eragingarriagoa bihurtu. “Urgentziak ez badira eta data aukeratu badaiteke, ilargiaren baitakoa izatea aholkatzen dugu. Orbaintze hobe eta osatze azkarragoa ekarriko du”. Masajeak emateko ere baliagarria dela dio.

Elikadura: Garaian garaikoa

Elikadura litzateke kontuan hartzeko beste elementu bat, ziklo desberdinetan ez baititugu jakiak berdin onartzen. “Ilgoran hobe digeritzen dugu”, dio. Era berean, garaian garaikoa jatera gonbidatzen gaitu. “Elikagaiak kontrolatuta gorputza kontrolatuko duzu”.

Emozioez ere idatzi du. Ilberrian garunak autokontrol handiagoa daukala dio, sena eta naturaltasuna gailenduko direla. Era berean, energia fisikoa murriztuko da. Ilgoran, subjektibitatea eta sormena gailenduko dira. Gorputza harberagoa izango da: elikadura, jakinduria... Ilbetea, kontzientzia eta hausnarketarako garaia omen da; asko eragingo du fisikoki. Eta ilbeheran, objektibitatea eta ekintza nabarmentzen ditu. Desintoxikaziorako baliatzea aholkatzen du. ■

UR SENDAGARRIAK ETA AIRE LIZUNAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Zestoa, 1760 urte inguruan. Donemiliagako markesaren txakurak ur beroko putzuak topatu omen zituen. Hazteriak jota zegoen eta putzu horietan sartuta sendatu omen zen txakurra. 1804an zabaldu zen bainuetxea eta, horrenbestez, Euskal Herriko lehen instalazio turistikoa izan zen. Turista gehiago etortzen hasi ziren 1893tik aurrera, *Gran Hotel*-a eraikitzen hasi eta gero. Eta 1920ko hamarkada zorionsuan kanpotarren eragina nabarmentzen hasia zen zestoarren mentalitate eta ohituretan, besteak beste dantzan, Fernando Arzallusek *Danbolin* Zestoako herri aldizkarian berriki jaso duenez.

Arzallusek 1928ko agiri bat jaso zuen duela hogeitau urteko festetako egitarauan. Dokumentuak islatzen duenez, urte hartako maiatzeko jaien ondoren, alkateak dantza lotuak debekatu zituen eta horrek herritarrak sumindu omen zituen. Zestoarren erantzuna eztabaidatu zuten udal agintariek, eta eztabaida hura paperan jaso.

Felix Zunzunegi heritarrak esan zuen “ez dela bera dantza lotuaren aldekoa, eta are gutxiago hemengo plazan dantzatzaren den dantza zorabiagarri horren aldekoa; berak eskatzen duela ondoko herrietan, Azpeitian eta Azkoitian, egiten dena egitea (...); bera musikaren aldekoa dela baina ez dantza erotikoaren aldekoa eta, beraz, desegokia iruditzen zaiola”. Itxuraz, Azpei-



Ezkerrean Zestoako bainuetxe sarrera nagusia. Eskuinean goian, erromeria bainuetxe parean, 1920. urtean. Azpian, bainuetxe galeria 1928ko abuztuan, udalak dantza arautu eta hilabete gutxira.



ZESTOAKO UDALA

tian eta Azkoitian arazoa konponduta zeudaten, baina inguruko herrietan kanpotik etorritako dantza *erotiko* haiek ez zeuden Zestoan bezain errotuta, nonbait.

Ramon Izeta alkateak arrazoiak eman zion Zunzunegiri, baina bazekien “musikariak dantza sueltoak bakarrik jotzearen kontra zeudela, eta horregatik bidezkotzat jo zuela *bailable* denak bertan behera lagatzea, ea hartara herritarrak otzantzen ziren; baina protestak halako mailara iritsi dira, eta ez da posible eskatzen dutena ez ematea”. Horregatik, er-

dibideko proposamena egin zuen: pieza suelto bat jotzea eta bestea lotua.

Antonio Eigurenek eskatu zuen erabakia, alde batekoa zein bestekoa, aho batez hartzea, liskar handiagoak saiheste aldera, eta azkenean alkatearen proposamena onartu zuten: “Bandak jo dezala pieza bat sueltoa eta beste bat lotua, baina angelusaren ordurako, hau da iluntzerako, dena bukatzeko baldintzarekin”. Baina, “ez dezatela jo eskandalosotzat hartzen diren dantza bat bera ere, esate baterako fox-trotak, charlestonak, tangoak eta abar”. ■



Pepi II, intsektuak uxatzen zituen faraoia

Pepi II.a edo Neferkara Pepi seigarren dinastiako azken faraoi nabarmena izan zen. Agintaldi luzea izan zen harena; Antzinaroko hainbat iturriren arabera, haurra zela igo zen tronura eta 90 urtetik gora egon zen agintean, K.a. 2278. urtetik 2184ra. Urte horiek guztiak ez zituen baliatu faraoiaren botere zentrala indartzeko. Alderantziz, eskualdetako

monarkek gero eta eragin handiagoa izan zuten. Baina horrek ez du esan nahi Pepik bere botere ia ahalguztiduna erabili ez zuenik. Besteak beste, intsektuak uxatzeko metodo eragingarria lortu zuen; eragingarria, faraoiarentzat. Esklaboei gorputza eztiz igurtzarazi eta, hala, intsektu guztiak haiengana joaten ziren, faraoia bakean utzita. ■

Nor nori (1+1=1)



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Lehengoa nioen landareak badirela nor. Nortasun hori berezkoa da batzuetan eta emana beste batzuetan. Berezkoa, landare jende berak garatu du denboran zehar. Eman, jeneralean kulturala dute, gure kulturak emandakoa. Tokian tokiko kulturak. Kultura horixe baita, lurra lantzea. Itxuraz, kultura hitza latinezko *colere*-tik dator, eta, agidanean, hori *kwel* indoeuroparretik, zeinak esan nahi omen du nahastu, irauli, itxulastu, aldatu, berritu... Hitz horiek de-nek lurrera naramate.

Txertatzea da kultura. Landare bati beste bat txertatuz berri bat sortu, bi landarez osatutako landare bat. Guk egiten dugu hori. Lurretik sortua dugun kultura, jakintza, landareei bueltan emana. Txertatzean mentu-oinari edo txertakari mentua edo txertoa jartzen zaio. Zein zeini, ordea! Hobeto esanda, nor nori? Sasoia denez, hona zerrendatxo bat.

Espezie berekoetan bakarrik txerta daitezke, besteak beste: sagarrondoa (*Malus x domestica*), olibondoa (*Olea europaea*), pikondoa (*Ficus carica*), hurritza (*Corylus avellana*), intxaurrendoa

(*Juglans regia*), mahatsondoa (*Vitis vinifera*), mingranondoa (*Punica granatum*), gereziondoa (*Prunus cerasus* var *cerasus*), gingondoa (*Prunus cerasus* var *avium*), pistatxondoa (*Pistacia vera*), gaztainondoa (*Castanea sativa*), ahukateondoa (*Persea americana*) eta kationdoa (*Diospyros kaki*).

Aldiz, zitrikoa beste edozein zitrikori txertatu: mandarinondoa (*Citrus reticulata*, *Citrus x tangerina*, *Citrus unshiu*...), laranjondoa (*Citrus x sinensis*), limoiondoa (*Citrus x limon*), arabisagarrondoa (*Citrus maxima*, *Citrus x paradisi*) eta abar.

Hezurra duten hauek ere elkarrekin txertatzen ditugu: elorri beltza (*Prunus spinosa*), mertxikondoa eta nektari-nondoa (*Prunus persica*), abrikotondoa (*Prunus armeniaca*), aranondoa (*Prunus domestica* eta abar) eta paraguaiondoa (*Prunus persica* var *platycarpa*).

Udareondoa (*Pyrus communis*) eta irasagarrondoa (*Cydonia oblonga*) elkarri txerta daitezke, baita elorri zurriari ere (*Crataegus monogyna*). Azken horrek ederki hartzen du mizpira ere (*Mespilus germanica*). ■



Ahuakateondoaren txertoa.

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Kaixo Jakoba. Pagadi gazte bat daukat eta esan didate komeni izaten dela, landarea gaztea dela, mutur bat utzi eta beste muturrak mozte. Zer iruditzen zaizu? Eta zein ilargirekin moztu behar nituzke mutur horiek? Mila esker eta ongi izan.

Kepa Martinez (Alegia)

Kaixo Kepa. Pagoak zuzenak izateko garrantzitsua da muturreko kimua izatea nagusia. Horrek bi baldintza eskatzen ditu: goranzko puja bakarra izatea eta horrek nahikoa elikagai izatea inda-



rrean hazteko. Lehenengorako zuzen gorantz soilik adar bat uztea komeni da eta parekorik balu –gorantz hura ere– hura moztu. Beste adarrak, bigarren mailakoak, enborraren bueltan datozenak, zabalera bai baina gorantz jotzen ez dutenak, garrantzitsuak dira landareak janari asko sor dezan. Horregatik horiei eustea komeni da. Urtero-urtero zuhaitza luzatu ahala, horietako adar bat edo bi kendu daitezke. Pixkanaka azpitik soilduko duzu, baina kolpetik adarrik eta janaria sortzen duten hostorik kendu gabe.

Lan hori apiril aldera egingo nuke nik, izerdia hazia duenean eta ilbeheran.



UAGA

Baserriko lanak eta etxekoak batzen direnean



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Lehen sektoreko emakumeen egoeraz hausnarrean aritu dira Arabako bost eskualdetan –Gasteiz, Arabako lautada, Aiara, Trebiñuko konderria eta Arabako Errioxa– otsailean zehar. UAGA nekazarien elkarteak antolatu ditu jardunaldiak, *Arabako emakume nekazari eta abeltzainak, landa munduko protagonistak* izenburupean.

Jardunaldien helburuetako bat Arabako Udalei, Kontzejuei, Kuadrillei nahiz bestelako erakundeei lehen sektoreko emakumeen egoeraren berri ematea izan da, Blanca Sanchez UAGAk teknikariak azaldu digunez: “Urteak darmatzagu sindikatuan lehen sektoreko emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde lanean. Jardunaldien helburua emakume horien ikusgarritasuna eta aitortza bultzatzea ez ezik, hausnarketari bide ematea ere bazen”.

Gogoeta bultzatzeko landa eremuan lanean diharduten emakumeen argazki erakusketa eta bideoa eraman dute herrietara. Hainbat emakume nekazarik kezka agertzen dute bideoan, gizarteko zati handi batek oraindik zalantzan jartzen baititu beren gaitasunak: “Trakto-rea gidatzea, inauteria edota jeztea emakumeen lanak? Bai zera!”, entzuten dute.

Ikus-entzunezkoez gain, bi hitzaldik osatu dute jardunaldia. Sanchezek be-

rak emana lehena, sektoreko emakumeen egoerari buruzko datuen eta lehen inguruan. Bigarrena, berriz, toki bakoitzeko emakume nekazari edo abeltzain batek eman du, bere bizipenak kontatuz.

Aitortza sozioekonomikorik ez

“Beste edozein sektoretako emakumeek dituzten arazoez gain, lehen sektoreko oztopo gehigarrietako bat da kasu gehienetan etxeko lanak nekazaritza lanekin nahasten direla”, azaldu digu Sanchezek. Alegia, familiako ustiapenetan dena etxe berean egiten dela, eta emakumeak izan ohi direla bi lanak egiten dituztenak. Gainera, aitorpen sozioekonomikorik ez dute izaten kasu askotan, eta horrek gizarte-segurtasun ez kotizatzea eta nekazaritza-abeltzaiztako profesionaltzat ez hartzea dakarkie.

Lehen sektoreko emakumeen aitor-tzan aurrerapenak egin direla izan da jardunaldietako ondorioetako bat, baina lege aldetik egindako aurrerapenak askotan hitzetan gelditu dira, Sanchezen arabera. “Legeek ez dituzte behar adina emaitza ekarri, horiek martxan jartzeko nahikoa aurrekontu eta neurri bideratu ez direlako”. Askok dago egiteko, zentzu horretan, teknikariaren ustez. ■

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Webguneko edukiak zure e-postan jaso ditzazun, buletin eder bat ari gara prestatzen. Bertan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak...

Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Martxoaren 21etik 23ra Goierrin XI. Ekozinema zikloa

Martxoaren 21ean *Ni Urumea* dokumentala ikusteko aukera Ataungo San Gregorio elkargunean, 19:00etan. Martxoaren 22an *Demain* (Bihar) dokumentala emango dute, 2015eko Cesar saria irabazi zuena: 20:30ean Ordiziako Herri Antzokian. Martxoaren 23an, Zaldibiako Karreane Kultur Etxean *Berta Cáceres: Guardian de los ríos* ikusgai, 19:00etan.

Martxoak 25: Gasteiz XV. Nekazaritzako Azoka Gardena

Urrezko Zeledonen plazan izango da (Correos parean). Arabako baserrietako produktuen salmenta zuzena eta garai-ko produktuen dastaketa izango dira. Umeentzako puzgarriak ere bai.

Martxoak 25: Orendain Sendabelarren ikastaroa

Clara Gutierrez Arana da irakaslea. Familia botikina izango da gaia eta maia-tzaren 6an izango da bigarren saioa. 9:30etatik 14:00etara izango da eta 24 euro da prezioa. Izena emateko deitu udaletxera: 943654064.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

LEKORE LITERATUR ALDIZKARIA

4

Gazteen literatura argitaratzeko aldizkaria

Itu Literatur Bandak argitaratzen duen literatura aldizkaria da Lekore eta urtean zehar, hiru zenbaki kaleratzen dituzte. Itu Literatur Banda Gipuzkoako kostaldeko hainbat lagunek sortu zuten arren, gaur egun, Euskal Herriko txoko ugariatako jendeak osatzen du taldea. Fanzineak egiten hasi ziren lehenengo, Obabako testiguak irratsaioan ere aritu ziren ostean eta duela urte bete inguru, proiektu berri hau aurkeztu zuten: Lekore, literatura zaleei zuzendutako aldizkaria. Martxoan Lekore aldizkariaren bigarren zenbakia eta Itu Bandak kaleratutako poltsa zein pinak izango ditugu zozketa-gai ARGIAkoen Gune honetan.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



LEKORE

lekore.eus

#kulturgintza
#literatura
#gazteak

Martxoko sariak

1



Finalaurrekoetarako eta finalerako sarrerak
Lau sarrera saioko

2



Solte taldearen Ixa diskoa
5 KD

3



Palestinako ipuinak
4 liburu

4



Lekore
3 sorta

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Martxoaren 6an Olatukoopek egindako batzarrean, "indar bereziak batzen".

Olatukoopeko kide egin da ARGIA



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Ikusten al duzu goiko irudian xelebre koadrila hori, irakurle? Indar bereziak batzen ari omen dira, hala aldarrikatzen dute bilera bakoitzaren bukaeran, eta lotsa gutxiarekin sare sozialetan zabalitzen dute argazkia gainera. OlatuKoopekoak dira, bai. Eta ARGIA kide egin da, bai. Beraz, hurrengo batean beti horren gai sakon eta serioak lantzen dituzten ARGIAko kazetariren bat hor tartean ikusten baduzu, ez harritu; sektara gehitu direlako da.

Onartu beharra diegu, baina, argazki horiek ateratzea alde batera utzita, hausnarketa garrantzitsuak egiten ari direla ekonomia sozial eta eraldatzailearen inguruan eta praktikan jartzen ari direla alternatibak. Irabazi ekonomikoen gainetik pertsonak eta bizitza erdigunean jartzea du oinarri ekonomia sozial eta eraldatzaileak, langileak dira enpresaren eta erabakien jabe, boterea modu demokratikoan kudeatzen da, eta izenak berak esaten duen bezala lehen lerroan jartzen du gizartea eraldatzeko bokazioa.

Ekonomia eta ekintzailatza ekonomikoan modu eraldatzailean jarduten

duten enpresa, elkarte, erakunde eta kooperatibek osatzen dute OlatuKoop sarea. Sinetsita daude Euskal Herriak ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarritutako olatu kooperatibo berri bat behar duela, eta horretarako alde batetik lehendik herri honetan izandako ekonomia eraldatzailearen eta kooperatibismoaren memoria modu integralean berreskuratu beharra dago, horrekin batera gaur egun martxan diren proiektuak bistaratu eta josi nahi dira, eta bestetik, norabide horretan eragingo duten proiektu berriak landu eta sustatzea da helburua.

Benetako eraldaketa sozial eta ekonomikoa egungo botere harreman bidegabeak botere harreman parekideekin ordezkatzu bakarrik lortuko dela ulertuta sartu da ARGIA ere enpresa/proiektu/komunitate sare honetan. Gogoratu ARGIA bera ere 1980tik langileen esku dagoela, eta ordutik ari dela filosofia honetan lanean, txikitik eta pixkanaka pausoak emanaz. Beste pauso bat gehiago, beraz. ■



Sarean arrantzatua

Igor Goikolea

@goikoleaigor

Bi azal.

Urtebeteko denbora tartea.

Argiak irabazi du.

Kazetaritzak irabazi du.

Adierazpen askatasuna garaile.



Iñaki Kasares

@ikasares

Gaur bi lagun ederrekin bazkaldu dut, biak ala biak mamitsu eta interesgarriak.



Axala blogean:



(H)Ilbeltza

URTE OSOA IRAUTEN DUEN NOBELA BELTZAREN ASTEA



Miel A. Elustondo



Nobela beltzaren inguruan askotariko ekitaldiak antolatu ohi dituzte urtarilarekin zazpi egunez, webgune ondo betea dute urte osoan, eta orain berriz, (H)ilbeltza beka aurkeztu dute. Aste izatetik urte izatera bidean da Baztango (H)ilbeltza.



Orain hiru urte abiarazi zuten asmoa Baztanen: (H)ilbeltza, nobela beltzaren astea. Harrezkero, genero beltza ardatz hartu eta hitzaldi, mahai-inguru, aurkezpen, ibilaldi, bertso-saio eta gainerako, hainbat ekitaldi diferente antolatzen ari dira. Trebatuak dira lanean, herri mugimenduetan zailduak, eta nobela beltzaren asteari lotu zitzaizkiolarik, jakinaren gainean ari ziren, bazekiten nondik eta nora behar zuten. Orain baino lehen esana du antolatzaileetakoa den Elurre Iriartek: "Literaturak aukera ederrak ditu kritika soziala egiteko, eta literaturaren barnean, nobela beltzak du, batez ere, kritika sozial hori egiteko aukera. Hori da guri interesatzen zaiguna, gizarte kritika. Eleberri beltzetan hor da beti ustelkeria, hor da beti azpimundu hori, arras iluna, neketan ikusten dena".

Loidi eta Izeta, Redondo baino lehen

Menturaz, Dolores Redondo idazleak bere nobela arrakastaz bezainbat gaztelaniaz beteak Baztanen kokatzeak ere zirikatu zituen beren txokoan aski isilka ari ziren aipatu bailarako irakurleak. Ez zuten gustura hartu asots handi hori eta, hein batean, hari erantzuteko ere sortu zuten nobela beltzaren astea. Minbera ere baziren. Behin eta berriz eta aunitzetan Elurre Iriartek esana dakigu: "Badirudi orain deskubritu dugula Baztan, eta orain deskubritu dugula nobela beltza! Erakutsi nahi izan dugu Baztan hemen zela aspaldidanik, eta gainera, nobela beltzarekin ere izan duela lotura. Hor da, errateko, Elizondoko idazle Mariano Izetak eskribitu zuen nobela beltza, *Dirua galgarri*, euskarazko literaturaren historian bigarren nobela beltza, alegia. Jose Antonio Loidiren *Hamabost egun Urgainen* famatuaren ondotik Izetarena etorri zen".

(H)ilbeltzan ez dira debaldetan ari, eta Loidi eta Izeta, hara hor bi izen Baztango nobela beltzaren astean goraki ospatu dituztenak. Bigarren edizioan izan zen, 2016an: batetik, Jose Antonio Loidiri omenaldi eginez, idazle zenaren arreba ehun urteko Anjelita gonbidatu zuten hizlari, eta bestetik, Izetaren lana berrargitaratu zuten Baztango Udalak lagundurik. Horiekin batera, hor dira Gotzon Garate zenak Baztanen kokatu zizkigun lanak; hasteko, *Esku leuna* eta *Elizondoko eskutitzak*. Bestalde, bertan eman zituen aldietan eskribitu zituenak ditugu *Izurri berria*, neurri handian

Sunbillako Ixtola baserrian egina, eta arestian aipatu dugun *Elizondo eskutitzak*, Arizkungo Iriarte etxean ondu baitzuen Garatek.

Irakurleek abiatutako esperimentua

(H)ilbeltzaren hasmentan irakurleak dira, haietatik etorri da astea. Irakurle horiek zortzi urte zeramatzatzen irakurtzen eta "Idazleekin solasean" kanpainaren bat egiten. Honetaz eta hartaz solasean beti, nobela beltzaren gainean jardutea bururatu zitzairen, zer edo zer egitea.

Hasieran, hitzaldiren bat edo aste-buru batean zerbait egitea ibili zuten gogoan, baina fite konturatu ziren aste oso bateko egitaraua osatzeko lain ideia zutela, denak nobela beltzaren inguruan josiak. Hasi ziren, beraz, zer etorriko zen ez zekitela. "Ia-ia esperimentua izan zen lehen edizio hura", Elurre Iriartek esanda dakigunez. 2015eko urtaril ilbeltzean hasi ziren eta handik hona hiru urte egin dituzte, eta, oker esateko beldurrik gabe, pisua irabazi du (H)ilbeltzak, presentzia irabazi du nobela beltzaren asteak Euskal Herrian egiten diren literatur ekitaldien barnean. "Gurea, negukoa. Eako Poesia Egunak dituzu udan, Zarauzko Literaturia udaberrian, Durangoko Azoka neguan...", Iriarteren hitzetan beti.

Liburuen inguruan biltzen diren irakurleak ez dira, ordea, bakarrik ari Baztanen. Bertako eta kanpoko, irakurle andana biltzea lortu dute bailarako herrietan nobela beltzaren kariatara hots egin dituzten ekitaldietara. "Astegunetan Baztango jendea biltzen da gehienbat, eta hori nahi genuen. Bertzalde, badugu irizpidea: bateko eta bertzeko herrietan egitea ekitaldiak. Batean izanen da Arizkun, bertzean Anizen, hurrengo Erratzun, Berroetan, Elizondon,

» ELURRE IRIARTE (ANTOLATZAILEA):

"Erakutsi nahi izan dugu Baztan hemen zela aspaldidanik, eta nobela beltzarekin ere izan duela lotura"

Lesakan edo bertze nonahi. Eta Baztango jendea mugitzen da harat-honat". Aste hondarren, bistan da, baztandarrekin batean biltzen dira batik bat arrotzak, zazpi euskal herrietatik bailarara joandako jende eta jendakiak.

Astea? Urte osoa!

Nobela beltzaren astea ez da, ordea, zazpi egunekoa. (H)ilbeltzakoak beti ari dira, beltzetik beti, agerian beti, eta ilbeltza.eus webgunea dugu froga. Molde guzietako edukiz bete dute sareko egoitza, bertan dira nobela beltzaren astearen aitzakian egindako hitzaldi eta solasak, baina baita hortik eskapo egindako elkarrizketak, eskribitutako saiakera motx gisako gogoetak eta bestelakoak. Inor izatekotan, (H)ilbeltzakoak saiatu dira bide berriak urratzen, euskarazko literaturaren leihoa are gehiago zabaltzen, nobela beltzaren haritik tinko tiraka, beti Baztanen, hiriburutik aparte.

Horretaz oharturik ari zen Aingeru Epaltza iaz, *Noticias de Navarra* egunkarian "Beltz" zutabea eskribitu zuenean eta Iruñean antolatua zuten beste jardunaldi bat ere, gaztelaniazkoa, hizpidera ekarrita: "Aurten ere Pamplona negra-kin lehiatu beharko du gaurdanik [(H)ilbeltzak], desabantaila nabarmenean. Baluarte dotoreziatik eta glamouretatik Arizkungo edo Irurritako aretoetako xumetasunera dagoen tarte bera, edo handiagoa, dago euskal eta erdal sistema literarioen artean. Tamainan ez ezik, irakurzaileen eta kazetarien artean ere. Horrek are eskergarriago egiten du (H)ilbeltza bezalako ekimenetan lana beltz egiten dutenen ahalegina". Hiru urte honetako ibiliak erakutsi duenez, ordea, glamourraren souffléa hutsa da barrutik, eta, aldiz, mamiz betea 2015ean Baztanen antolatzeari ekin zioten nobela beltzaren astea. Nafarroako hiriburuko dotorezia axal horiek eta batzuen eta besteen tamainak gorabehera, harrera beroa egin dio euskara jendeak Baztango (H)ilbeltzari, eta jabetuak dira horretaz ekimen beltzaren sortzaileek. Ez alferretan zioen Maitane Maritorenak



Herri mugimenduetan zaildutako jendea ari da urtero (H)ilbeltza antolatzen. Bazuten esperientziarik, eta nabaritzen da: denbora gutxian euskal literaturaren zaleentzat erreferentziazko zita bihurtu da Baztangoa. Orain, Udalarekin eta Txalaparta argitaletxearekin batera martxan jarri duten bekari esker, urte osoan emango du zeresana Baztanek eta nobela beltzak.

Xorroxin irratia egindako elkarrizketan: "Hirugarren urtea dugu, baina erreferentzialtasun handia lortu dugu".

(H)ilbeltza beka

Lanak ongi egiten ari dira, bai: irakurleak biltzen, idazle eta era guztietako sortzaileak erakartzen, irudimen haize berriak erabiltzen, auzolanean, ereduzko ekimena gauzatuz Baztanen herriarren eta bailara mailako agintari politikoen artean. Esaterako, elkarlanaren ondorio bikaina begitانتzen zaigu (H)ilbeltzak eta Baztango udalak azkena jakinarazi dutena, hau da, (H)ilbeltza beka, Txalaparta argitaletxearen laguntzaz bideratua, "euskal literatura beltza hedatu eta munduko literatura beltza euskaratzeko asmoz". Oinarrien berriak arestian aipatu ilbeltza.eus atarian diren arren, esan dezagun 6.000 euroko saria duela bekak, gutxienez 145.000 karaktereko lanak agindu dituztela, eta ekainaren 23a baino lehen aurkeztu behar dela lanaren lagina Baztango


Udaleko erregistroan. Abian da beka, (H)ilbeltzak ekarri duen azken berria da, oraingoan batere ez beltza.

Nobela beltza aitzinatze bidea izan liteke. Ikusi arte, ezin esan hala izango den. Orain bi urte nobela beltzaren astean egindako mahai-inguruan galdera bera erabili zuten Itxaro Borda eta Jon Alonso idazleek. Imanol Ibaigarriaga irakasle eta blogariari arranondo.com-en leituz jakin dugu: "Itxaro Bordaren iritziz [su etenaren] momentu berri honek indarrak egunerokotasunean finkatzea ekarriko du (...) hiritarren gehiengoaren errealitate sozio-ekonomikoari dagokion eleberri beltza nagusitu ei liteke (...) Jon Alonsoren ustez, berriz, duela hogeita hamar urte euskal nobela beltza eskribitzea posible zen ala ez eztabaidatzen bazen, gaur egun irakurlego kopurua dezentente hazi denez, eleberri beltza posiblea izateaz gain, aurrerantzean gizarte beraren aldaketak be jasoko ditu". Ikuskizun da hori. Bitartean, bidean da (H)ilbeltza beka, nobela beltzaren beka Baztanen. ■

^{æek}20. korrika HASIERA

OTXANDION

MARTXOAREN
30EAN



10:30: Korrika txikia
11:15: Korrika-kanten koreografiak umeekin
13:00: Kale-animazioa: dultzaineroak...
13:30-15:30: Zurezko jolasak
15:45: "Aurrera Korrika" ikuskizuna
16:40: Hasiera-ekitaldia

17:00: Korrikaren hasiera

18:00: Txokolatada
19:30: Erromeria GOZATEGI taldearekin
20:00: EGONIAN elektrotzaranga

*Egun osoan zirko-ikuskizunak kalean.

*Plazan jatekoak eta edatekoak egongo dira.



www.aek.eus
www.korrika.eus

BAT
ZUK

Nori axola zaizkio antzerki liburuak?

lazko uzta literarioak utzitako berezitasunetako bat izan da euskarazko antzerki liburuaren argitalpena. Kopuruz igoera apala izan bada ere, zer esana eman dute argitaratutako lanek. Nork irakurtzen ditu, baina, irakurtzeko idatziak ez diren testu hauek? Zergatik eraman liburura oholtzarako sortzen dena?



Itziar Ugarte Irizar
@itzugarte

“Noizbait gertatu behar zen, antzerki liburuaren urritasuna gehiegizkoa izan da”. EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak kide Jaime Valverdek esana da. Emankorra izan da antzerki liburuaren uzta 2016an, ez hainbeste kopuruz, ezpada mamiz. Lau izan dira argitaratutako lanak: *Mr. Señora* (Oier Guillan, Txalaparta), *Erleak, satorrak, beleak* (Gaizka Sarasola, Edo), *Habiak. Arrastoak* (Dejabu, EHAZE) eta *Arestiren nazioa, antzerkia* (Karlos del Olmo, EHAZE). *Erlea* aldizkariaren 10. alea ere euskal antzerkiari eskainia izan da osorik.

Antzerkia ikusteko modu berezi bat agertzeagatik izan dira ohikoan baino aipatuagoak liburu horiek, Ainara Gurrutxaga aktoreak eta Dejabu panpin laborategiko kidearen esanetan: “Azken antzerki liburuaren atzean dauden pertsonen urte asko daramate antzerkia egiten. Liburuak lan prozesu sakonen ondorio dira, eta esango nuke nabarmendu direla antzerkia ikusteko modu berria erakusten dutelako. Kolektiboki sortutako antzerki mugimenduen isla

dira, hori da berrikuntza, energia dakarte eta tratatzen diren gaiak oso aktualak dira, gaurko irakurleari oihartzun bat sortzen diotenak”. Nolanahi den, antzerkia genero literario gisa guztiz baztertuta nabari du Gurrutxagak: “Liburutegietara joan besterik ez dago”.

Argitaletxe estandarrek antzerkiari leku murrizta eginagatik ere, irakurleak badaudela dio Valverdek. “Antzerkia kontuz argitaratu behar da, aintzat hartuta testua ez duela berezko euskarri. Aitzitik, modu estrategikoan eta luzera begira, garrantzitsua da antzerkia formatu idatzian ere zabaltzea. Besteak beste sarbidea errazten duelako testuaren bideetan, liburutegietan edo hezikuntza sisteman. Hedabideek iaz antzerkiari emandako tokia ere liburuari esker izan da, hein batean”.

Transmisioa betiko aje

Antzerki liburuaren urritasunak transmisio-etena elikatzen duelako, ezinbestekotzat du hauen argitaratzea EHAZEko kideak. Dioenez, “transmisio etena gure



antzerkiaren ajea da sortu zenetik. Argitalpenek soilik ezin dute antzerkiaren transmisioa bermatu, baina hutsunea betetzeko bide bat da”. Halere, bestelako beharrei begiratzeko deia egin du, dokumentazio zentro baten faltari kasu: “Dokumentazioa lantzen duen egitura berezko bat behar da, antzerkia jo puntuan izango duena, bere berezitasunekin. Izan ere, esaterako, hogeita hamar urte barru antzerkia ikasten dutenentzat, ez da gauza bera *Arrastoak* bidez ikustea eta antzezpenaren gaineko informazio mamitsua eskura izatea, edo testua irakurtzea, honek ere asko esan arren”.

Euskal antzerkiaren iragana eta oraina jaso gabe geratzen ari denaren oharpen horretatik, bilduma berria abiarazi du EHAZE urtero bi argitalpen kalera-tzeko. Argitalpen proiektuaren ildo bi-koitza izango da: gogoeta eta saiakerak batetik, eta antzezlanak bestetik. Egitasmoaren estreinako lanak Durangoko Azokan aurkeztu zituzten, aurrez aipatu *Arestiren nazioa*, *antzerkia* saiakera eta *Arrastoak* antzezlanak.



» **AINARA GURRUTXAGA:**
 “Iaz publikatutako liburuak kolektiboki sortutako antzerki mugimenduen isla dira, hori da berrikuntza”

» **JAIME VALVERDE (EHAZE):**
 “Dokumentazioa lantzen duen egitura berezko bat behar litzateke, antzerkia jo puntuan izango duena, bere berezitasunekin”

Oier Guillan, Urko Redondo eta Ainara Gurrutxaga iazko Durangoko Azokan, EHAZE argitaratutako bi liburuen aurkezpenean.

MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Aktore gisa ere transmisio falta “ikaragarria” sentitu duela dio Gurrutxagak. “Halako batean norbaitek kontaktzen dizu 60-70 hamarkadan Euskal Herrian sekulako mugimendu alternatiboa egon zela antzerkian, mundu mailako mugimendu berritzaileenak aintzat hartzen zituen, idazle onenetakoak oholtzartzen zituen. Ezezagutza handia dago, berdin materiala lortzeko”. Hein horretan, EHAZEren egitasmoa giltzarritzat jo baina “desertuaren erdian putzu bakan” izan ez dadin, azpiegitura sendoa go baten eta babes sakonagoa beharra dagoela dio.

Nola bizi antzezlanen liburutik

Antzerki liburuak badira antzezlanen taula gainean ikusterik izan ez zutenek bestela obraz gozatu ahal izateko ere. Baina, benetan posible al da antzerkia paperera eramatea? Gurrutxagak, “zorionez” ezin dela uste du, beti dagoelako “testukeriaren” edo antzerkiaren berezko hainbat elementu ezin jasotzearen arriskua. Bere hitzetan, “bertso saio bat

paperera osorik eraman ezin den bezala da, bertsoak bai baina plazan jendeak sentitutako komunikazio ariketa ezin da ia transmititu paperen. Ariketa oso interesgarria da, hala ere”.

Antzerkia ekintza kolektibotzat ulertuta, *Arrastoak* liburura eramateko idazte prozesua ere kolektiboa izan da Dejaburentzat. Kolektiboa dela dio Gurrutxagak guztien argazkiak, bizipenak, memoriak bildu dituztelako haietako bat edo bi idazten jarri aurretik. Gero, idazketaren “testukeria” gaunditzeko dramaturgia oharrak erabili dituzte: “Keinuetan, mugimenduetan eta irudietan oinarritutako antzerkia egiten dugu eta saiatu gara azaltzen nondik jaio diren irudi horiek, argazkiak eta planoak jarrita, ze collage egiten ditugun azaldu ta, irakurri ditugun liburuak aitortuta. Antzezlan bat sortzea unibertso txiki bat sortzea da, zinetik edaten duena, margogintzatik, musikatik, argazkigintzatik. Unibertso hori nola hornitzen den idatziz adieraztea erronka oso ederra izan da”.

Oier Guillanen *Mr. Señora* izan da antzerki liburutan nabarmendu den aipatu obretako bat, zazpi antzezlanen osatua eta estetikoki berritzailetzat jo dena. Honen hitzaurrea idatzi du Gurrutxagak. Aurkako norabidean lotzen dira liburu eta oholtza kasu honetan. Gurrutxagaren arabera, “Oierrek proposamenak idatziz egiten ditu eta gero aktore talde bati eskaini oholtzara eraman dezan. Aldatzen da prozesua, baina ez dut uste hain diferentia denik, garrantzitsuena testu hori oholtzara eramatean beste material bat gehiago izatea delako, argia, musika, emozioak edo aktoreen inprobisazioak diren bezala, hau da, oso malguta izan dadila. Askotan autoritate bat ematen zaio testuari, nire ustez, ez duena zertan izan antzerkian”.

Valverderen esanetan, argitaratutakoa zenbat eta gehiago antzeztu, orduan eta gusturago denak, idazleak, aktoreak, antzerkizaleak. Argi dio: “Irakurtzeko gozagarria da, baina izan antzerkia gorputzera eramateko da”. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Betiko istorioak haurrentzat



Xabier Etxaniz Erle



Txitxarra eta inurria JEAN DE LA FONTAINE

Ilustratzailea: Ximena Maier
Itzultzailea: Iraia Yetano
Moldaketa: Eva Aubarell
Ibaizabal, 2017
18 orrialde.
Haurrentzat.

Ibaizabal etxeak *Ipuin klasikoak* bilduma argitaratzeari ekin berri dio (oraintsu Ereinek *Miniklasikoak* egin duen bezala) eta gure inguruko tradizioan ezagunak diren hainbat istorio haurrei eskaini. Sei dira orain arte plazaratu diren lanak (*Bremengo musikariak*, *Ahatetxo itsusia*, *Landako sagua eta hiriko sagua*, *Hiru txerrikumeak*, *Aladin eta kriseilu miragarria*, eta azkenik, hona ekarri dugun *Txitxarra eta inurria*). Ikus daitekeen bezala istorio ezagunak dira, herrikoiak eta gure inguruko egile eta tradizio ugaritatik (Grimm, Andersen, kultura arabiarra...) iritsi zaizkigunak.

Txitxarra eta inurria La Fontaineren alegia ezagunetarikoa bat dugu. Udan “alferkeriatan” ibiltzen den txitxarrak eta lanean dabilen inurriak nola egiten dioten aurre negu gordinari. Kontakizunaren hasieratik adierazten zaizkigu pertsonaia bien ezaugarriak: “Inurriak uda osoa eman du garia, haziak eta apurak inurritegira eramaten. Badakizue zergatik dagoen hain lanpetuta? Negurako jana biltzen du. Hotza etortzen denean, janaritegia beteta izango du. Buruargia da gero inurria!”; “Inurriaren alboan txitxarra bizi da. Uda kantutik pasatzen du: txir-txir, txir-txir, txir-txiiiiir... Siesta orduan, txitxarra kantari aritzen da, eta haren kantuarekin denek goxo-goxo egiten du lo itzalpean. Txitxarrak ez du neguan pentsatzen”.

Irakurleak ezagutuko duen moduan negua iristean txi-

txarrak janaria eskatu beharko dio inurriari, eta eskarmentua hartu duela kontuan izanik, hurrengo udan berak ere lan egingo duela adierazi. Baina horrekin batera, bere musikari esker, kantuari esker, gainerakoek eduki deskantsatu ahal izan dutela adierazten dio txitxarrak inurriari. Alegia, lan fisikoaz gain arte lanak ere baduela garrantzia eta bere tokia mundu honetan. Elikatzeko modu asko daudela, batzuk elikagai fisikoak dira, beste batzuk, aldiz, gogoa elikatzen dutenak.

Istoria nahiko sinplea da, erraz irakurtzen dena (letra larriz idatzita dago irudi ugariz lagunduta dagoen testua) eta liburuaren amaieran, gainera, bada ipuin, istorio edo alegiaren bertsio osoago bat helduak irakurtzeko. Beraz, istorioaren bi bertsio ditugu, laburtua (letra larriz eta ezkerreko orrietan ageri dena, eskuineko irudiak lagunduta) eta osoa, liburuaren amaieran. Gainera, liburuek duten formatuak lagundu egiten du haurrak, aurrerago, irakurketa autonomoa egiteko; hau da, istorioa behin ezagututa berak bakarrik “irakurtzeko moduan” irudien bidez. Eta, jakina, irakurtzen hasi direnek, beraiek bakarrik testua irakurtzeko ere bai.

Abiada bizian doan gizarte honetan gure sustraia, gure ingurukoenak eta hauekin guztiekin egiten dugun oinarria sendotzeko bilduma egokia, eta gomendagarria. ■



Jean de La Fontaine (Château-Thierry, 1621– Paris, 1695) poeta eta fabulagile frantziarra.

» TELEGRAMA

Nostalgiko asko ikusten duzu inguruan azkenaldian? Zu ere nostalgiko? Ba **Piperrak** taldea garai batean entzundakoa bazara, jakin ezazu Josetxu abeslaria Gasteizen ariko dela martxoaren 24an Jimmy Jazz aretoaon *STOP* Nostalgia esan dugu, ezta? Pixka bat gehiago, mesedez: **Janis Joplin** zena oroituko dute Bilbao Arten 24an, zinema eta musikari eskainitako zikloan *STOP* Baina atzera begira jartzeak balio dezala aurrera begiratzeko: horrelako zerbait da **Lou Topet** taldeak **Pete Seeger**-en musikarekin egin duena: Arriaga antzokian ariko dira martxoaren 26an *STOP*

» DISKOA

Aurrera, beldurrik gabe



Joxi Ubeda



Hegalen indarraz aitzina

ALTXATU

Gor, 2016

Diskoz disko aurrera egiten ari da Irunberriko Altxatu taldea. Zuhaitzik garaie-nean habia egiteari beldurrik ez dion txoriaren Japoniako kondaira baliatu dute inspirazio gisa, eta, kondairako txoriaren modura, erronka berriei beldurrik izan gabe osatu dute disko berria.

Punk-rock kutsuko doinuak jotzen jarraitzen dute, baina beren ukituarekin, bizi, indar handiarekin, eta melodia politak ere egiten dituzte, *Berriro* kantan, esaterako. Afinazioarekin jolastuz soinu berriak bilatu dituzte, eta gitarrak, baxuaz eta bateriaz gain, bonbardinoa eta tuba ere erabili dituzte diskoari amaiera ederra ematen dion *Biharko bide* kantan.

Diskoan entzun daitezkeen hamaika kantuetatik hamar Altxaturenak dira eta hamaikagarrena Julen Lekuonak 1983an idatzi zuen *Ez dut nahi* kantaren bertsioa da. Kantu

horretan Gorka Armendariz Leihotikan taldeko kideak abesten du Altxatu taldekoekin bate-ra. Beste kantu batean, *Garaipen krudela* kantan, Silvia Hibakusha aritzen da. *Errugabe* kanta osatzeko, berriz, Eduardo Galeano-

ren *El emperador* istorioa moldatu dute ("Enperadoreak aholkulari errugabea urkatzea agindu, zerrenda luze bateko lehena izan zen, errugabeak urkatuz, lortu zuen errespetua").

Kantetan, oro har, kritika eta salaketa egiten dute, eta beren kezken eta ametsen gainean mintzo dira: "Zer da gaur elkartasuna? Zer da gaur anaitasuna? Baloreek zentzua galdu dute" (*Garaipen krudela*), "Emakume askearen defentsa eginen dugu, emazteak afaria prestatu baino lehen" (*Hipokresia*), "Atzera egiteko astirik gabe, aitzinean dugu biharko bide, txorien antzera hegalek astinduz, bidaia berri baten hasiera dugu" (*Biharko bide*).

Harremanen, sentimenduen eta maitasunaren gainean ere bai: "Kantadazu hemen, astiro, zein ederra zaren" (*Berriro*), "Gaur ez dut gehiegi eskatu nahi, gutxiarekin konformatzen naiz, emaidazu ordu bat, beste erdia nik hartuko diot datorren egunari" (*Ordu eta erdi*).

Iker Ariz, Julen Abaurrea eta Ibai Osinaga Altxatu taldeko kideek 18 urte besterik ez dituzte eta jadanik hiru disko egin dituzte *-Altxatu* (2013) eta *Hitza* (2014) dira aurreko biak-. Lan berriko kantuetan heldutasuna erakusten dute, baina freskotasuna galdu gabe, eta erraz, lotsarik gabe eta gogotsu jotzen jarraitzen dute. ■



Irunberriko Altxatu punk-rock taldeko Iker Ariz, Julen Abaurrea eta Ibai Osinaga gazteak joaldi betean.

Bilboren nortasuna(k)

HITZALDI-KONTZERTUA

Martxoaren 16an, Bilboko Azkuna Zentroan.
Loraldia Festibalararen barruan, Lutxo Egia
idazlearen eta Mikel Inunziaga musikariaren
Hiri hori da hiri hau emanaldia.



Dabi Piedra



ARGAZKIAREN ITURRIA: LORALDIA

Aurtengoa hirugarren edizioa bada ere, udaberri hastapenean Bilbon sustrai sendoak bota dituen egitasmoa da Loraldia, urtetik urtera luzeago, oparoago eta zabalago. Ikuspegi garaikidetik euskal kulturari begiratzeko leihoa da Loraldia eta, Azkuna Zentroko hitzaldi-kontzertuan, hiria bera izan zen protagonista. Meatzaleak programaren eta Loraldiaren arteko lankidetzari esker, *Hiri hori da hiri hau* aurkeztu zuten Lutxo Egia idazleak eta Minel Inunziaga, Inun, kantautoreak.

Lekua, ezin aproposagoa. Bilboren eraldaketaz hausnartzea izan zen hitzaldi-kontzertuaren helburua, Guggenheim Museoaren titaniozko distirak hiria nola aldatu duen aztertzea. Azkuna Zentroa, behinola ardo usain sarkorreko alondegi, diseinuzko eraikin kulturala da egun. Azalarekin batera aldatu ote da Bilboren mamia, alondegi zaharrean bezala? Lehengo eta oraingo Bilboren nortasuna bat eta bera al da? Horiexek Egiak eta Inunek plazaratutako zalantzak. Alegia, hiri hura ote da hiri hau?

Hotsa. Portuko iskanbilak. Ondoren, Abbaren *Take a chance on me*, Inunen

ahotsaren eta gitarraren bidez. Hala hasi zen saioa. “Paisaia begia da, baina belarria ere bai, eta sudurra”, horra Lutxo Egiaren baieztapena. 1990eko hamarkadan, itsasadarraren ertzeko fabrika ke-tsuek pasealekuei, parkeei eta museoei utzi zieten lekua. Bilboren itxura aldatu zuen horrek. Garai bateko zaratak eta usainak –kiratsak– desagertu ziren.

Hurrengo ordubetea, desagertutako Bilbo haren eta errealitate bihurtutako Bilbo utopikoaren arteko talkaz gogoeta egin zuen Egiak, Inunen doinuek lagunduta. Guggenheim Museoa eraiki izana, zenbateraino izan da etena hiriaren nortasunean? Erantzunak baino, galderak bota zituen. Lehen autentikoagoa zen Bilbo, ala iragana idealizatu dugu? Itxurakerian galdu gara? “Simulakroaren munduan, kartoizkoa benetako bihurtzen da”.

Euskal literaturak zeresana izan zuen Egiaren eta Inunen hausnarketan. Euskal idazle ugari erakarri dituen zurrumbiloba da Bilbo, baina hiria aldatzen joan den bezala, idazleen ikuspuntua ere ez da bera garai batean edo bestean. Bernardo Atxaga aipatu zuen Lutxo Egiak lehenik, asteasuar bilbotartua. Haren

atzetik etorri ziren Miren Agur Meabe, Koldo Izagirre, Jon Alonso, Jon Arretxe, Irati Jimenez, Blas de Otero, Itxaro Borda eta abar. Eta, jakina, Gabriel Aresti. “Londres da Dickens, Dublin da Joyce, Donostia da Saizarbitoria. Bilbo da Aresti”, bota zuen Egiak.

Bien bitartean, Inunek hainbat abesti-eren zatiak kantatu zituen, Bilbo eszenatoki edo protagonista duten piezak. Eta Donostia. Bilbo baita Donostia ez den guztia, eta Donostia Bilbo ez den guztia. Ala ez? Inunek entzule guztiak harritu zituen Donostiari eskainitako rap gisako abesti batekin. Sarriegiren *Donostia-ko Martxa* zen doinuaren oinarria.

Ziurtasunak baino, zalantzak agertu zituzten Egiak eta Inunek, entzule bakoitzak gogoeta egin zezan. Euskal idazleak bidelagun, jauzika ibili ziren: fabriketatik museoetara, Abandoibarratik San Frantziskora, auzo herrikoietatik gentrifikaziora, abangoardiatik bazterkeriara. Bi Bilboren arteko tentsioa dago? Bilbo bakarra da, baina geruzaz osatua, Egiaren ustez. “Gezurrezko Bilbo baino egiazkoagorik ez dago”. Azken finean, hiri hori ere bada hiri hau. ■

Gurutzegrama

[illegible]

Ezker-eskuin:


1. Erraz. Lur neurria, 10.000 metro koadroren baliokidea. **Gasteizko auzo honetan hainbat urmalez osatutako hezegune garrantzitsu bat dago.** 2. **Langile auzo eredu fidela, 1950-1960 bitartean Gasteizko kutzak sustatuta eraiki zuten.** **Martxoaren 3ko sarraskia han gertatu zen; poliziak langile mugimendu bat zapaldu zuen, eta bost hildako utzi zituen.** Ordaintzeko betebeharrak. Nafarroako herria. Sailburu (laburdura). 3. Sobera, gehiegi. Blai eginda gelditu. 4. Nafarroako herria. Aldez aurretik. 5. Ganiabetak. 6. Sodioaren ikurra. Garraibide. 7. Gaixotasuna. Balio handiko gauza. 8. Isilpeko argibideak lortzeko egiteko duen pertsona. Perpaus, esaera. 9. Ezezkor. Bertaratu. Irristada. 10. Zein pertsona. **Gasteizko kiroldegirik handiena eta Ogeta pilotalekua dauden auzoa.** Fruitu, emaitza.

Goitik behera:

1. Atzen. Lauso. 2. Abantzu, kasik. Anitz, ugari. 3. Estrontzioaren ikurra. Iparralde. 4. Bizkaiko herria. ...-tak, erlojuaren hotsa. 5. Sistema optiko. 6. Hasi aditzaren infinitiboa. Doinu, melodia. 7. Janariak sutan prestatu. 8. Kasa, kontura. 9. Norat atzizkia. 10. Azken-aurreko hil. 11. Modu atzizkia. Bakoitzak bat. Kolpeak eman. 12. **Okupazioak biziberritu duen auzoa**. 13. Errusiako enperadorea. 14. Txota. 15. Bakoitzaren jokamolde. 16. ...erdi, erabat. 17. Iristakor. Garoa, iratzeta. 18. Errota, eihera (Bizkaian). 19. Uso ar. Izena (laburdura). 20. Irdioaren ikurra. Silizioaren ikurra. 21. Irtzi. aburu. Kontonante bikoitza. 22. Udako hilabete. Hemen dagoena.

Betegrama


Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.




5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Ulertu.
2. Dira, bizkaieraz.
3. Nafarroako herria.
4. Biltegia.
5. Gogo biziak.



Ebazpenak



Erke-estumun: 1. Aise, Heiktarea, Saldunua.
2. Zaramaga, Zor, Aos, Sb. 3. Sobra, Blaiua, 4. Suarbe,
Aurrea 5. Aitztoak 6. Na, Tren. 7. Gaitza, Altxor:
8. Espio, Esaldi. 9. Ukakor, joan, Irrista. 10. Nor,
Mendiizorrotza, Zitu.

Gothik eheara: 1. Azken, Genu. 2. Ia, Asko. 3. Si, Ipar:
4. Ea, Tiki 5. Zoom. 6. Has, Ahaire. 7. Egoi, 8. Kabuz,
9. Rat. 10. Azaro. 11. Nor, Bana, jo. 12. Errekaletor 13. Tsar,
14. Txano, 15. Rol, 16. Erdiz, 17. Labain, Ira. 18. Bolu.
19. Usar, iz. 20. Ir, Si, 21. Uste, Ir. 22. Abuztu, Hau.

Izaro Basurko. Giza garapenerako teknologia sustatzen



Mugarik Gabeko Ingeniaritzako kidea da Izaro Basurko (Donostia, 1981), baina Ingurumen Zientziak ikasi zituen. “Elkartean oso beharrezkoak dira ingeniariak ez direnak ere”, azaldu digu. Energia berriztagarrietan eta lankidetzan aditua da, baita militante ekologista ere. Teknologiaren garapenari lotutako kontraesanek hausnartu dugu harekin.

“Guk gure gailuak etengabe berritzeko, beste batzuen eskubideak zapalduta daude”



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Unibertsitatetik ekologismora

“Ingurumen Zientzia ikasketak amaitutakoan garatuta nuen kontzientzia, horregatik sartu nintzen ekologismoan. Gero Mugarik Gabeko Ingeniaritzaren mintegi batean parte hartu nuen, elkartean zer ikuspuntu zuten ezagutzeko, eta haren ondorioz boluntario aurkeztu nintzen. Ez dakit Ingurumen Zientziak ikaste hutsak kontzientzia ekologista garatzera bultzatzen duen. Nik behintzat zortea izan nuen: irakasle onak egokitu zitzaizkidan, gauza askotaz pentsarazi zidatenak. Horrela egin nuen jautzia ekologismora”.

Mugarik gabeko. Beraz, kanpo lankidetzarako sortutako taldea.

Orain, batetik, proiektu bat daukagu El Salvadorren, hango emakume talde batekin aurrera ateratzen ari gara. Herrixketara ura eramateko sistemak sortu, saneamendua egin ekoteknologia bidez... Teknologia erraza, baina haien zatitza beharrezkoa. Saiatzen gara komunitatearen eskuetan egon dadin, ez hango agintariren batenetan. Eta saiatzeko gara gure lanean genero ikuspegia txertatzen. Izan ere, teknologia ez da neutrala. Generoari dagokionez ez behintzat. Teknologia gizonen ikuspuntutik garatzen da.

Agian helburu maskulinoa duelako: mundua menperatzea?

Baietaz esango nuke, teknologiarekin lotu nahi dena natura menperatzea da. Hala ere, zer hartzen dugu teknologiaz? Askotan goi-teknologiarekin lotzen dugu kontzeptua, baina badaude beste teknologia batzuk, zaintzari lotutakoak; horiei artisautza esaten diegu. Baina buztinezko ontziak sortu ez bagenitu ez genuke edukiko orain daukagun bizimodua. Eta jostorratza, eta artaziak...

Teknologia asko “ezkutatuta” daude emakumeek baino ez dituztelako erabiltzen. Azken batean, teknologia batzuek potentzia handiagoa dute natura eraldatzeko, eta beste batzuek txikiagoa. Badauk guk giza garapenerako teknologia esaten diegunak, eta gure ideia horiek erabiltzea da. Ezin dugu besterik gabe sortu teknologia, sortze hutsagatik. Eta horrekin batera dator beste hausnarketa bat: zeinek eduki behar du teknologiaren eskumena, nork eta zeinentzat sortu behar du? Uste dugu jendarteak eduki behar lukeela eskumen hori.

Hemen ere egiten duzue lanik.

Besteak beste, ikastaroak egiten ditugu nazioarteko lankidetzara zer den azaltzeko, jendeak batzuetan ez dakielako oso ondo zer den.

Uste okerrak izaten ditugu lankidetzaz?

Askotan jendea etortzen zaigu esanez “nik asko dakit, lagundu egin nahi dut eta El Salvadorrera joan nahi dut nire proiektua egitera”. Guk uste dugu lankidetzara mota hori batzuetan ona dela baina eraldatzaileagoa izan behar dela.



"New Yorkera oporretan joatea ez da eskubidea, denok ezingo genukeelako egin, ez legoke energia nahikorik. Eskubidea daukagu batetik bestera mugitzeko, baina ez edonola."

Pentsatu behar da zergatik dauden herrialde horiek dauden bezala, eta hala datozkigunei esaten diegu "agian ez da beharrezkoa inora joatea laguntzera, baizik eta hemen gure bizimodua aldatzea". Nahi dugu lankidetzaz parekoa izatea, ez asimetrikoa, elkartasunez baina karitaterik gabe. Nahiago dugu gure proiektuak guk kudeatu baina hango jendeak gauzatu ditzala, han ere badaude-eta ingeniari onak.

Ingeniaritza eskoletan, ingeniartzaz gain, pentsamolde bat ere irakasten da?

Mainstream-aren pentsamoldea teknofantasia bat da: teknologiak dena konpon dezake, zu lasai egon eta jarraitu bizitzaren orain arte bezala, ez da arazorik egongo. Asmatuko dugu zerbait klima aldaketa konpontzeko, energia gutxiago kontsumitzeko... Eta uste dugu ikuspegi kritikoagoa falta dela. Ikastaroak egin ditugu ingeniartzako eskoletan eta ikasleek esaten digute: "Irakatsi diguten guztia izan da nola eraiki hau eta beste, baina inoiz ez digute esan zertarako". Urtegi bat, adibidez: ikasten da zer turbina erabili, zer kalkulu egin... Baina ez

diete esaten zeintzuk diren kaltetuak, edo zeinentzat dakarren onura urtegi horrek.

Energia gutxiago kontsumitzeko bide teknologikoaren promesa aipatu duzu. Berriztagarriak gorantz doaz etengabe, baina askok ohartarazi dute berriztagarriak ez direla nahikoa gaur egungo bizimoduari eusteko.

Arazoa ez da teknologikoa, gizarte sistemarena baizik. Ezingo genuke denok kontsumitu guk adina. Bizimoldea motteldu beharko dugu, eta beste balore batzuk indartu. Badaude hainbeste energia kontsumitu gabe egin daitezkeen gauzak: irakurri, musika entzun, antzerkira joan, antzerkia ikasi...

Egiten dira, hala ere...

Bai, baina ez dira New Yorkera hegazkinez joatea bezain erakargarriak. Eta ezin dugu denok oporretan New Yorkera joan.

Ez al da eskubidea New Yorkera joatea?

Ez, denok ezingo genukeelako egin. Denok batera egin nahi bagenu, ez legoke

energia nahikorik. Eskubidea daukagu batetik bestera mugitzeko, baina ez edonola. Eta bestetik, gu New Yorkera joateko joaten garen prezioan, petrolio oso merke ustiatu behar da munduko beste leku batean, eta hango eskubideak urratu. Berdin gertatzen da mugikorrek, ordenagailuekin, eta batzuek ia urtero aldatzen dituzte. Guk gure gailuak merke erosteko eta etengabe berritzeko, beste batzuen eskubideak zapalduta daude.

Kontsumitzailea etengabe errudun sentiaraztea ez da helburua izango noski.

Ez, helburua kontziente izatea da. Behar duzu eskuko telefonoa? Bai, baina erabil ezazu kontzienteki eta ez erosi urtero bat, eta ahal baduzu eskatu, galdetu, "nondik etorri da hau"? Berdin telefonoa, tomatea edo arropa. Kontsumitzaile garen heinean badugu indarra gauzak aldatzeko. "Zertarako nahi dugu teknologia?", hori da azken batean egin behar dugun galdera. Zertarako eta zeinentzat. Baldin bada gure bizi kalitatea hobetzeko, erabil dezagun, baina baldin bada beste batzuen eskubideak zapalduz gure apetak betetzeko, ba... ■



Prestakuntza mentalari garrantzi handia ematen dio mendizale lemoarrek.

Alex Txikon Everestera igotzen saiatuko da neguan, oxigenorik gabe, txankletekin eta Perurenaren harri bat bizkarrean

Alex Txikon ez da kikildu eta erronka handiagoei jarri dio bere buruari: munduko mendirik altuena igotzen saiatuko da neguan eta oxigeno gabe, azken saiakeran bezala. Baina orain "dibertsio apurtxo bat" gehitzeko asmoa adierazi du: txankletekin eta Iñaki Perurenak 1994an jaso zuen 320 kiloko harria bizkarrean duela abiatuko da gorantz. ETBk Gailurra Xtreme saio berezia egingo du, "Everesteko

erromeriya" izenarekin. "Andoni Aizpuru eroango dugu, eguraldiak noiz puteatuko gaituen hobeto jakiteko", azaldu du Txikon. Irati Anda ere espedizioa kide izango da eta Txikon kezkatuta dago horrekin, mikrofonoak itzali direnean azaldu duenez: "Pentsatu bera ere goraino igotzen dela, neguan, oxigeno gabe, txankletekin, harria bizkarrean... eta gainera bertsotan! Horregaz ezin dut konpetitu".

90eko hamarkadako kaputxak modan daude berriz, Leioa Fashion Week-en ikusi denez

Azken urteetan euskal gazteen *outfit*-tean lekuri izan ez duen arren, joan den asteko Leioa Fashion Week pasarelak erakutsi du kaputxadun sudaderak berriz ere *trendy* direla. Tendentzia aldaketa gogor jotzen ari da jada unibertsitateko artean, geroz eta gehiago jantzen dute kaputxa eta moda adituei galdetu diegu zergatik. "Oso janzkera praktikoa da, klasiko bat, eta gainera primeran konbinatzen du esprai-po-


toekin, molotov koktekin eta ikasleek egunero erabiltzen dituzten beste zenbait konplementuekin", azaldu digute Elena Hairspray eta Leire Nabarnizek. Kaputxa jantzita pasatzen ikusi dugun gazte bati ere galdetu nahi izan diogu burua eta aurpegia estaltzearen abantaila, baina "errepresioa" eta ez dakit zer gehiago oihukatu ondoren joan egin da, EHUKo iturrien arabera, "gauza kon- denagarriak egitera, seguru".

SAREAN ARRANTZATUA

Errepresioaren aurrean, independentzia!



Elkarrekin podemos ir euskaltegira





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzearra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com